EGUNA

JEL

Euzkadi'k, bafuan eta kanpuan dauz areyuak. Gaiztoenak, bafuko areyuak dira.-Au eztogu aztu biar.

Lgo. urtia | 73'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 937'gn. epalla 27'gna 'arunbata | 15 euneu

ABENDA ZARRA ZUTIK

Biar, VI Abeŕi-Eguna dogu

Urian eta mendian, kalean eta guda-oñetan, asmo bat, gogo bat, biotz bat euzko abertzale guztiak.-Sinismen biziz, azkatasun egaŕiz, itxaropen jarioz ospatu dagigun.

EŔI JAI

Ezin iñoiz egokiago esan Egun ofen izaera eta guna. Abendaŕen odolak bizi dirauteño, eŕia, Euzko Eŕia alegia, berez eta beretzat biziko alda.

VI'gaŕen Abeŕi Eguna antolatzarakoan, gogoen batasun orixe iñoizko estuen, sendoen, alkartuen izango dala uste dogu abeŕtzale guztiengan Eisayaren eraso zi'alago, sendikoen batasuna are ta baŕukoago, iraunkoŕago, eteneziñago.

Gogoen beroak, ordea, atera, kanpora, aizetara urten beaŕ dau. Biotz-txinpartak galgalka ixuri inguruko epelak oro sutuarteño, baŕeneko gaŕa soñetan blei ta izpitsu ageriazi arteraño.

Egitarau gordiñak mamitu ditugu. Baŕuko adorea, soñetan kemen eta indaŕ, itxaropen ames, bizitza guna itzuliko ditugu.

EUZKOTAŔ AGERTU

Berpizkunde argi, leñuruak, sakoneko beltzetik mendi eŕpiñak jo uŕen di'nala, losoro alpaldian egoan gogo-zaŕa, zirkinka, zotiñez, igituz asi da.

"1'82'gn. goiz bat zuala... abandotaŕ gizon andi arek jauriitako oyuaren ovaŕtzuna bai zoli eta entzungaŕia. Goiz aren edeŕa!...

Ta Sabin'aren ifintzia, galdu uste askorentzat, andik urte askotara egin, izaki biurtu dala aitortu beaŕ. Euzkadi da Euzkotaren Abeŕia! Geure Abeŕia!

Ofezkero, gaurgeroz, iñoiz baño sendoago asmo bakaŕ izan daigun. Asmo bakara, eta euzkotaŕon gogo biotzak sendo lotuko dituana beti-rako.

Euzkotaŕ gara. Euzkotaŕ izan gaitean bada. Gogo ta soñez, asmoz eta egitez, baŕuz eta jokaeraz, bulkoz eta izkuntzaz.

TEDEDUN

Itz zaŕa, gure auŕetikoek españetan betiro erabili oi dabena. Euzkotaŕak siñismen benetakoen argiz bere adimena jantzi ebanez gero, Kisto'ren siñismenez izan da Euzko-Eŕia. Siñesmendun, zindo, egi-zalea.

ULAZIA'RI

Nork ez du ezagutzen
Pi, Ulazia?
Au baj daka kantuan
ondo ikasia.
Mundu z er goralpen
asko irabazia,
entzun naj dionak ofa
ora berezia.
Afiaga'ra, jaunak
al duan gucia.

Gauŕkoan afizku andiz inguraturik gabiltzan ontan, gure erakusburu nabariena, gure izaera erakusgaŕiena, gure barne betegaŕiena, esan maiour, jator auxe, egiaz ta benetan. *Kistakaŕak gara.*

JAUNARTZEA

Biaŕ goizeko zortziretan, Begoñe'ko Andra Maria'k bere oñetan auzpezturik izango gaitu lefokada amaibakoetan, sail luzietan. Meza ta jaunartze ofokaŕa izango bai-dogu.

TXARTELAK

Paskoasko txartelak artutzeko gaur dozu, irakuŕle azken eguna. Donostiaŕak, Donosti-Buru-Batzaŕ jo bezalc.

GUDA-OÑETAN

Uŕetan bezela, guda-oñetan bere, Abeŕi Egunari asiera bardiña emongo dautse gudari abeŕkideak.

Jaupa eta jaunartzeak ezin izango ditue egin jentiaz, baten afotz etsai gaiztoak mendietara eraman-azi zituen euzko gudari bulaftsuak.

Gudasaletako apaizak, artzai zintzo eta arduratsuak, neke bilduŕ gabe, oñaze ikara barik, ara onaka, bakoitzaren gogo artaldeak esi bigun



EGITARAUA

LARUNBATEZ

Ilunabaŕean, Euzko Eresbatza'k eta txistulari ta Euzko Eresbatza'k kalez-kale.
Afiaga antzokian, "Amaya" antzo zkizuna.

IGANDEZ

Goizeko zazpi ta erdietan. Goiz-eresiak, txistulari ta Euzko Eresbatza'k. Zortz'retan, Begoña'ko ertxadonan, jaupa ta jaunartze orokaŕa.
Ama'ketan, San Mames zelayan, meza nagusia, "De Angelis", eŕiak eta Euzko Abesbatza'k abestua.
Ondoren, lagunak eŕeskadan kalez kale ezpatadantzari ta gorulariak auŕetik dirala.
Afatsaldeko iru ta erdietan, kirol-jai bikaña.
Jaŕayan, "Amaya", Afiaga aretoan.

eta atseginen baŕu ipinten alegindu-ko dira.

Biaŕ, azkatasun soñuak bai'lirean, Kisto'ren bizitza-eŕañuak izadi oro zeaŕ edatu, eta giza biotzak poz-iturri biurtu oi diran egunez, zelai loratsuetan euzkotaŕ gaztien gogoak sendoen Ogia euren biotzeraturik, urikoekin batean, eresi bikain, eskeintze samuŕ, opara edeŕ, eta eskari gurena zuzenduko dautse Jauna'ri. "Zureak gaitu zu, gure Abeŕia Zeuria izan bedi!"

JAUPA NAGUSIA

Goizeko amaŕ eta erdietan izango da meza nagusi abestua, zelai edeŕ batean Bilbao onetan.

Esan bezela, "De Angelis" jaup-eresiz abestuko da, eŕiak eta Euzk Eresbatzak, aldizka eta batean.

Batzokietan, meza-abesti paperak zabalduko dira, eta euretara jo begic abeslari guztiak, bakoitzaren lngiaz ornidu daitezan.

MUNDU-ZEAŔ

Meza andi ori, ifatiz edo radioz edatuko dogu, eta lazteŕ eta lufalda orotan entzun al izango dabe.

Euzkoak kistaŕ d-raue, euzkaldun

dedun dira gaufartekoan lez, oraiu e, esan izan al izango dabe gogoa jo daben guztiak.

KIROLAK

Amaika muetetako ki... da -ditugu biar.

Goizeko zazpi ta erdietan, txiŕindulariak Bizkai'ko uriak zeaŕ urtengo dabe, eta Bilbao'ra amabiak aldean elduko dira, Zornotza, Gernika, Bermeo, eta Ondaŕeta zeaŕ Bilbao'rarte.

Beste oŕialdean dozu, irakuŕle, kirol-arloa izeatz meatz azalduta.

Afatsaldean, San Mames zelayan, egundoko kirol-jaya izango dogu: lasterkari, jaurtizale, jauskari, aŕi jasotzale, aizkolari, tirartzale, dantzari, eta abaŕ.

EUZKO ITXASTAŔAK

Kirol-jai ori, euzko-itxastaŕ erime eta adoretsuen goran eta euren sendien aldeŕ izango da.

Olaxen, eŕiak, gure Eŕiak egingo dau'se zor gaiken omena. Euzkadi aldez galdu ziran itxastaŕei.

EŔIETAN

Ainbat eta ainbat uritako egitarauak ikusi ditugu. Bizkai onetan eta paxisten mende ei-ditugun euzko lufaldetan ospoz eta aundiro izango dabe biarko egunaren aldia euzko abeŕtzaleak.

ITZALDIAK

Batzoki guztietan iraku'leko zabaldu dira eŕietara, itzaldi bereziak, egunari dagokiozanak.

"AMAYA"

Gauŕ, biaŕ eta etzi izango dira antzezkizun bikañak, Afiaga antzoki edeŕean.

Gauŕ, bakaŕa, afatsaldeko sei ta erdietan.

Biaŕ, iru ta laureretan eta sei ta erdietan.

Biaŕ, iru ta laurenetan eta sei ta erdietan.

Astelenez, sei ta erdietan.

Txartelak amaitu uŕen dira, eta azkaŕ ibili. Euzko-Gastedi'ra le.

"AMAYA" DALA-TA

Olaizola'tar Gabirel'ekin beŕiketan

ZABALBEASKOA'RI

Ene au uŕetxindoŕ
zoli, atsegiña,
Euzkadi'ri amaika
laguntza egiña,
Matildo goraltzeko
ai, ni ez naiz diña
saiatuz egin, uŕen,
neuŕe alegiña,
ezin jaso nezake
merezi dun aña!

Astunegi ez izateaŕen ez genizun erabat amaitu Olanzola'kiko izketaldia. Beste ertilarien beŕi ematen ziran Olanzola'k, baña berea ixilik gorde, alik eta ni aŕerka asi nitzaion aŕte. Euzkotar jator guzien gaitza da au. Etxeko alofak alik ezkutuen enki nai izaten ditugu Ez degu geure bururik agertu nai izaten.

Nere galderak utsean ez uzteaŕen—nik, dagoki an bezela noski—zaŕarena egingo dut beti lez—dasait Olaizola'k.

Abes'ari bezela jaun au aupatzen ez dut asko nekatu beaŕik nire ustez.

Nor da ordea beronen beŕi ez duanik?

Agertutako leku guzitan ben benetako ertilari gorengoaren izena bereganatu du. Europa'ren lau egaletan ezaguna da bere izena

Goñ'ren egitekoak nork bete lezazke jaun onek bezela?

Au bezelako antzezlariak, au bezelako abeslariak eta au dan bezel ko abertzalerk Euzkadi'n oparotsu ugaltzea Goitaŕ Jaunak nai dezala beintzat.

Gure eŕi zaŕaren berbizk... n denboraz genuke eskutan.

卐 卐 卐

Gure joxe Etxabe markako gizona da afaiotan. Gabirel'ek ere nola goraldu ditalako gero... Danak merezi ditu.

Ere'ari edo mus'ka gaitan gutxi gutxik añean ulertzen duana Abesti kontutan Gayaŕe'k zekian ainbat. Dantza arloan, maixu zuzen ziuŕa. Antzerki lanetarako antzezlari aukeratua. Gure Etxabe au zertan ez da ordea artista? Olako aparejurik au daukagu beintzat...

"Amaya"ko dantzarien zuzendari degu oraingoan ere. Donostia'n, Barcelona'n, Iruña'n, alderdi guzitan izan dan bezela Nor egokiagorik?

Ta ez dantzariena bakaŕik. Beste mila eretara ere Etxabe "Amaya"ko antzezlarien zuzendari da. Erderaz esango genuken: "director artistico".

Pikaro au nundik nora ezkutatuko beti. "Amaya" gaiz bere lanak sarturik, zerbait esango ziralakoan, ta... zakuŕ zaŕa Piuratzerik ez gustatzen nunbait! Afaio ori...! Ta garagardoa noiz izango ote diagu?

卐 卐 卐

Ola'zola irakasleak "Amaya"ko dantza edeŕ ikusga'ien beŕi eman ziran.

Lenengo ataleko dantza zoragaŕia (pleniluni'o) izenez ezagutzen degu.

"Amaya" lenen antzeztu zan dantza oni etzitzaion tokirik emat n: etzan ezagutzen. Eresantzerki au asko edeŕtzen du ofaatik one'xek.

Eloi Garai ospatsuaren gain dijoaz. Apartak agertuko dira. Zoriontzea merezi du afanetan. Ikurdi edo esku'o, sarde, lantza ta abar Euzko-Gaztedi'ko jende zintzo langileak antolatu ditu.

Maŕazkiak beŕiz, ortantxe ikasten Madrid'en a nbat denbora egindako emakume argi batek egin dizkigu. Olaizola eskertua dago emakume ofengana.

Jazkerak, beŕi beŕiak izango dira Apañak, zoragaŕiak.

Emakume abertzale lirañen eskutatik ezin nolana'ko gauzik urten. Xixtrinkeririk ezpa'tute maite.

卐 卐 卐

Olaizola bizkoŕak esan digunez, "Amaya" lau aldiz antzeztea oldoztu da oraingoz. Nire ustez, Gabirel, gaur Bizkaia'n dagon jendetzaren gogorik eta zaletasuni ezta aseko lau aldiz emanda "Doña Francisquita" astebetean antzeztuaz jaŕai ba' dute, pentsa besterik ez dago "Amaya"...

Kontuak ateratzeko denbora ba dago ordea gero ere. Ikusiz gañera alegia.

卐 卐 卐

Azken galderetan zenbat urte zituan galdetu zion Olaizola'ri e

Befogei ta sei bete dituala erantzun ziran.

E a jaunak, amazazpi urte bete zitun ezkeroztik Euzko Alderdi Jeltzaleko alderdikidea da. Era guzitara zenbat goraipen merezi ez du jaun onek?

Onetzaz gañera "Amaya"n agertzen diran ertilari geien geienak abertzaleak dira. Geien geienak, danak ez jartzeagatik esan dut.

Ba liteke ba bakaŕen bat alderdiko ez izaten.

Ai... Zenbat gauz edeŕ ager lezaken gure alderdiak!

Zer ez daukagu ordea?

Olaizola irakaslea gazte bizi da. Oso gazte.

Bai. "Basaŕi", befogei ta sei urte dauzkat, baña neskatxa gazteak sinisten ez dutelaŕik egundoko begiratu goxoak egiten dizkidate.

Ikusiko litzake demantretan...

Ta gu emen ezkur zaŕak baño (eztimaxio) guixiagorekiñ...

Ekatzu bosteko ori, lagun zaŕ!

Alaxe, eskuak trukatu, ta Afiaga arte esanik utzi genuan maixu goralgaŕia.

BASAŔI

MENDIBELTZUA

Abeslari azkaŕa
Antzezki lanean
Betez be "Amaya"
Antzezten daunian
Abeŕtzale sutsua
Sendua lanian
Txalogaŕia zara

BILBAO'KO izpaŕingiak

Galdakano

Epaillean eta otsaillean uritxo onetan jajo diranen artean edozeinbat euzkel-izendun ikusi doguz ta pozkaŕi izan yaku. Euzkel-izenok begiko yakuz.

Galdakano'ko senean beste urietan, be, gaituaz ba-duaz euskel-izendunnk, oba litzake. Eredugaŕi yaku ba, Galdakano. Jaŕaitu besteok, be, Galdakano'ren bideari.

Ona emen ilabete bi oŕeitan jaio ta euskel-izena ezaŕi yakoenen zeŕendadea:

Etxeberia eta Orue'taŕ Julen Iñaki, Bitor eta, Simone'ren semea, Usansolo'n.

Martinez eta Etxebaŕia'taŕ Guruzne, Domeka ta Pantzeskeren alabea.

Aŕibaltzaga eta Elortza'taŕ Elixabete Miren, Joseba ta Irune'ren alabea.

Aŕiaga eta Yurebaso'taŕ Peli, Sekunda eta Josebe'ren semea.

Etxebaŕia eta Gaiastegi'taŕ Miren Begoñe, Matai ta Martine'ren alabea.

Olabaŕieta eta Azkueta'taŕ Iñaki, Kepa'ren eta Kataliñe'ren semea.

Garai eta Elekuri'taŕ Sabin, Joseba eta Josebe'ren semea.

Garai eta Elekuri'taŕ Karla, Joseba eta Josebe'ren semea.

Oŕa euskel-izen zeŕenda mardul -mardula ta oŕnidua.

Zorion-agufik sutsuena euskel-izena seme-alabei ipiñi dautsen gurasoei.

Ereño

ABEŔI-EGUNERAKO EGITARAUA. Goxian, Jauna aftutia. Amaiketan, jaupa eta ikufin baŕija onetsitia. Amabijetan, ikuŕiña Udala'ri bezuzaz emotia eta euzko -eresijak bijotza afaituteko.

Afatsaldian Aguŕtza deuna eta euzko -eresijak txistu soñuz eta "ponograpos". Gero aparija Udalak eta jel agintarijak alkafegaz anaitasunian.

Sondika

VI ABEŔI-EGUNA.—Sondika'ko Jel -Alderdi Uri Buŕu-Batzaŕak eralduta, ixango dira gaur ta bijar, uzkurtz eta Abeŕi alde jai onek:

Egitaraua

Larunbatian.—Afatsaldeko gazpiretan biŕibiketa Batzokiko txistulaŕijak. Gabean sortzi terdietan Euzko Gastedijan txistulaŕi jotaldija, euzko-abestijak. Ilakuŕiko dau abeŕtzale batek, Abeŕi Egunaren opalbena. Amaituteko, Euzko-Abendeaŕen ereserkija.

Igandean.—Goxeko saspiretan, txistulaŕijak kale ibilketa.

Saspi terdietan, abeŕtzale oroen jaun aftza, euzkerazko itzaldijagaz. Euzko ikastolako neska mutikoak abestuko dabez abesti elizkoŕak. Amaituaz, Aguŕ Josu'ren Ama.

Amaiketan, Goierdiko zelayan antzinesko eran aufeskua gastediko taldiak.

Baskal ostian, Euzko-Gastedi'ko aretuan txistulaŕi jotaldijak, euzko abestijak, bertsolaŕijak eta azkenez euzko-jaia Eskatzen dausogue abeŕtzale gustijei eŕdu daitezela bat batian jai onetara, ospatuteko aundikiro VI Abeŕi-Eguna.

Begoña

BERPIZKUNDE IGANDIA. — Goziau amaŕetan, jaupa nagusia lenbiziko Perosi'ren Pontifical abestuko da eta Méntxaka'taŕ Kepa'ren gain izango da itzaldia.

AGURTU.—Oso pozik bostekua estútu nion Elgoibaŕ'ko Jel Batzoki'ko Uri-Buru -Batzaŕeko lendakaŕi ta abeŕkide zintzua dan Epelde'taŕ Alberta'ri.

EZKONTZA.—Miren Deuna eleizan ezkondu zan Orbegozo'taŕ Bernaba, Simosa Aranburu'taŕ Karmele neskatila politaŕekin. Zoŕionak.

EUZKEL IZENA.—Joseba Mirena euzkel-izenak ezaŕi diote ugurutzatuzian Gorostiaga'taŕ Emeteri eta Alkorta'taŕ Pantzeske'ren seme jaío beŕiai. Zoŕionak eta gurasoak antzera izango alda euzko gudaŕi on ona moŕosko beŕi oŕi.

ELGOIBAR'TIK BILBAO'RA.—Atzefian (Asturias'en) baña, Euzkadi gaitik bere odola itzuli du "Amayur" gudaloroko elgoibaŕtaŕ gudaŕi kementsu zan Txuŕuka Zabaleta'taŕ Joseba, "Oraindi" basetxeko moŕosko gordiñak (G. B).

Baita ere luŕ oyetan zauritu ba, Amuategi'taŕ Laurentzi Elgoibaŕ'ko "Irungo -beŕi"ko "Amayur" gudaloroko gudaŕi bulartsu ta adoŕetsua.

Elgoibartafok, otoi Joseba gudaŕiaren gogo aldez, eta Laurentzi'ŕi lenbailen guztiz sendatuta ikusi nai degu.

Aixeriza

Zollo

GUDA-OÑETIK.—Asturias'etik zauriturik etoŕita emen ikusi ta aguŕtu doguz Larisgoitia'taŕ Kauldi ta Sagaŕdui'taŕ Simon, gudaŕiak.

Asturias'ko guda oñetik be, gexorik elduta geure aŕtian daukogu Etxebaŕia'taŕ Koldobika, goragoko biak legez "Ariztimuño" saildikoa. Gauz andirik ez ei-dau kie. Lasteŕ osatu.

Ufengoan guda-oñetik zatozenian oingoan baño kontuzago ibili. Ez egixue laŕ eraŕili miñe. Etxatzue konbeni guda-oñean ikusi ta egin dozuezanak esatia

Edonon daukoguz, ba, paxisten soroslеak eta laguntzaleak.

IKASTOLA BAŔIA.—Gure endorea, Guridi'taŕ Koldobika'k, beste eskola bat imintia lortu dau. Ez edozelako ikastola. gero, euzkel ikastola baño.

Biaŕ-biaŕezkoak ziran emen euzkel ikastola ta neskatoentzako ikastola, ta txori bi oŕeik tiro bategaz il dituz Guridi jaunak.

Ikastola baŕi oŕi eŕikoetxeko batzaŕ aretoan (saloian) imiñi da ta astelen santu egunez zabaldu zan. Gure neskatoak eta mutikotxurik gastienak ara jo biaŕko deude emetik aufera Antxe ikasiko deude gure neskatoak josten, euzkerea maite ixaten eta beste jakingaŕi asko, be bai.

Gura ixatia al ixatia da. Gure endoreak gura ixan dau eta lortu egin dau.

Agiri dau eŕiaren alde lan asko egiten diarduana; alkatetxa bere gain aftu ebanetik ona, asko argaldu dala esango geunke, Jagon, Guridi, zeure burua; oindino biaŕ zaitugu ta.

Ta ufengoan mutilen ikastola euzkeldunduten dozun.

ELIZKIXUNAK.—Eleiz atean dagon iragarkiak diñon letz aste onetan eleizkixun bereziak izango dira. Eguen Guren egunez goxeko elizkixuna amaŕetan ixango da. Bariku Santuz baŕiz zortziretan; afastеiko elizkixunak ostera, ordu bi ta erdietan asiko dira egun bi oŕeitan

Datoŕen igandez umien lenengo Jaunartzea ixango da zazpi ta erdietako mezatan.

ABEŔI EGUNA. — Egun oŕi Abeŕi -Eguna dala ta, Batzoki agintarien erabagiz, abeŕtzale guztiak Jauna aftuko deude ta abeŕiaren onaren aldez eskatu, be, bai.

Erdu danak. Ez utsik egin.

LUGIÑEN LANAK — Auntztaldeak eta artaldeak yagotia da aspaldi onetan gure gastien zeŕegiña. Eguzkia urten eta lasteŕ, basora juaten dira ta iluntzaraŕte eztira etxeratuten.

Aŕbiak dira oŕain, abelgoŕiak geyen jaten daben jatekoa.

Soloetan, lengo astian ekaŕi euskuezan patatak ereŕten diñaŕdugu lugiñok. Iñoz baño lufsagaŕ (patata) geyago ereŕngo da aurten Zolo'n. Lufsagaŕa beintzat eukiko dogu datoŕen urtian eta biaŕba diru-pilotxuak, be, aftuko doguz aŕeik saltzean.

JATEKOA UŔI.—Kalietan jangai uga ririk eztagol-a, saŕi-saŕi ikusten doguz kanpotaŕak basetxetako atetan afautzak, urune ta abar erosi nairik. Amaika papel zaŕ aftu dabez aspaldian zolotaŕ askok.

Etxian dagozan janari guztiak baña ez saldu, dirua ezta jateko ona-ta.

IRAKASLEME BAŔIA.—Eldu yaku Laskaraetaŕ Miren, euzkel-ikastola baŕiko irakasleme edo maistria. Nabaŕiztaŕa ta euzkeltzale zintzoa ei-da.

Ondo etoŕia. Onuratsuak ixan bediz euzkereaŕen aldez egingo dozuzan lanak.

Urdin-zelai

Muxika

EUZKEL-IXENAK.—Ibaŕuri'ko Zalo -Etxebaŕia'taŕ Joseba eta bere emazte Zamaloa'taŕ Pauliñe'k, euŕen euzko-baratzea lenengo loratxubaz jantzi dabe. Mutila ixan be-ta, Joseba euzkel -ixen polita ezaŕi dautsoe.

Atabitxi-amabitxijak, Zalo-Etxebaŕia'taŕ Jon, eta Goŕiño'taŕ Domeke, jayopaŕitxubaren osabea ta amama ixan ziran. Eta ugutzale, gotzontxubaren osabea dan Zamaloa'taŕ Peli jauparija.

Zoŕionak.

JOSEBA DEUNA'REN JAYA.—Aŕlatza'ko txadonan ozte aundijaz ospatu zan Joseba Deuna'ren jaya. Goxeko saspiretan jaunaftze oŕokaŕa egin zan.

Jaunaftze bitaŕtian abesti samuŕak abestu ziran. Amaŕetan, Perosi'ren jaupea abestu zan. Jaupa au Aŕlatza'ko neskatilak abestu eben, Uribe'taŕ Miren'ek txauneskiñua jota abestu be.

Guruzbidia ta abaŕ, besti ederak abestu ziran. Eŕitaŕai atsegin ixan yakezan beñepein.

Eskeŕak Zamaloa'taŕ Kipiren jauparijari eleiz-abestijak irakasteko agertuten daben zaletasunagaitik.

DABILTZANAK. — Igandian Muxika'n agurtu doguzanak, oŕixek dira: Artabe'taŕ Joseba ta Enbeita'taŕ Jagoba bere alabatxu Gaŕbiñe'kin, Bilbao'tik etoŕita. Saŕdui'taŕ Bitoren, Uribe'taŕ Kepa, Atxika-Alende'taŕ Joseba Mirena eta Itza'taŕ Eustaki, Laudio'tik etoŕita. Oneik bost euzko -gudaŕijok "Itxasalde" guda-taldekuak dira.

Zoŕionak eta ondo-etoŕija gustijoi.

TXINDOR-KUMIA.

Zeanuri

ABEŔI-EGUNA.—Gaur, larunbatea, txistulaŕiak kaletan biŕibilketak joaz, adieraziko dabe ufengo egunen, Berbizkunde egunez, Abeŕi Egunaren dala.

Berbizkunde goizean Andra Mari elexan elizkixunak izango dira.

Afatsaldean bespera ondoren Uri Buru Zoyan pelota paŕtidua,

Intxaufaga, Areatza'ko Madariaga'ren aurka.

Bigaŕen pelota paŕtidua, Patxi Eguzkitza eta Manu Areatza'koa Txinduŕi'ren aurka.

Pelotaŕi gasteak ez ba'dira bere, ikusiko dozute bijar, igandea, besagain eta txokoan jokaera politik.

Ikasbide edeŕa ematen dozue aguŕeok.

Bai ta ere izango dira aizkolaŕi joku, soka indaŕketa ta abaŕ.

Berbizkunde Eguna, Abeŕi Egun dala erakutsi bear dogu zeanuritaŕak.

BASEŔITAŔ BAT (1).

(1) Luzaroan ixilik egon zara, Zeanuri bezelako eŕi euzkeldun batean EGUNA izpaŕingiak bertako izpaŕak bialtzen dauzan idazle bat bear beaŕeko dau eta uste dogu aufeŕantza izpaŕak bialduko dauzkuzula. Bai ta ere uste dogu aŕpidedunak egiten alegindukо zarala.

Forua

Foru-Euzko Batzokian daukagu, aurtemin geure abeŕkide batek idoro eban sakel-kaŕeŕatxua, baŕuan txindija polito eukala.

Sakeltxu oŕi galdu dabena joan beite be, Foru'ko Batzokira, eta beria balitz, an emongo leuskioe.

Lekeitio

EREMU IGANDIA.—Juan dan igandian, oi da dauez, amaŕak aufetxuan izan zan ereñotzak onetiteko eleizkixuna Amaŕetan, Goikoetxeaŕen lau abotsetakua kantau eben mezа nagusijan.

Aŕatsaldian, bispera ondoren paŕkaziñeko sermoia izan zan eta lagun ugaŕi elduaz.

AŔANTZUAN. — Azken egunetan, baŕiro be afain preskua jateko aukera ugaŕija izan dogu. Atxeko afañak ezeze, txitxaŕua be sendo izan dogu, ba. Txitxaŕo sasoia oŕain ez dogun afen, aurten saroi konturik eztago-ta, paŕa-paŕa balego nai.

ASTE GURENA.—Kanpuan ibilideunak ez besteja beti lez izango doguz, Jaungoikua lagun Aste Santu onetako eleizkidzunak.

Erderazko itzaldijak, merzedetaŕ Aba batek egin ditu, eta atsedenez dagozan gudaŕijak be elduten izan dira eurotaŕa.

ABEŔI EGUNA. — Domekan dogu aurtengo VI'gaŕen Abeŕi Eguna. Abertzale agindaŕijak egitarau labur eta polita orotu dabe, ezer geyagorako aukera eta egokitasunik oinguan eztabe eŕez be izan-ta.

Ufengo igandian, Pasku eta Abeŕi Eguna dogu.

Goizean, beko elizan, zortziretan Mikel Deuna'ren altaran, meza eta jaunaŕtzia.

Euzkadi'ren eskubidien aldez jausi diran lekeitiaŕ abertzalien gogo aldekua izango da eleizkizun oŕi.

Gordexola gudasaildikoak juango dira bertaŕa

Amaŕetan, meza nagusija, bertokuak eta kanpokuak abestuta.

Afatsaldian, Euzko Batzokijan, abestaldiak kanta gozo eta atsegiñak abestuko ditu.

Gora, ba, bijotzak, abertzaliok! — E.

Axangiz

Geure baseŕi txukun onetako ziñegotzi aberkidiak begi-begiko jakuzan eskaŕi bi egin dautsez, udalaŕi.

Lengengoa. Udaletxeko txelgoan Euzkadi'ko ikuŕiña agertu daitela eŕkalaŕena jasoten dan guztietan.

Bigaŕena. Eŕi-enparantzeaŕi oraindik aufeŕa onantxe deritxola: Arana -Goiŕi'taŕ Sabin'en zelaya.

Zoŕionak geure abeŕkide ziñegotzi maiteok eta buakijoe geure txalo eta zoŕion beroenak.

Durango

ABEŔI-EGUNA. — Datoŕen igandian Berbizkunde eguna dan lez, geure agintarijak agindu daben lez ospatuko dogu Abeŕi-Eguna Eŕi onetako U.-B.-B., Batzokiak eta Emakume Abeŕtzale Batzak gertau dabezan jai ospetsubak onek ixango dira:

Larunbatian.—Gaubeko zortzi ta erdijetan txistulaŕijen biŕibilketa. Bederatzijetan, akeit orokaŕa Batzokijan. Bertan egingo da usiebako egikera bat.

Igandian.—Goxeko zortzi ta erdijetan, Andra Mari'ko txadonan jaupa abestua eta Pasko'ko Jaunaŕtzia.

Amaika ta erdijetan, aufeskulaŕijen saŕiketa, eta ondoren pelota-jokua, Ezkurdi'ko zelayan jokatek dabe "Kiŕikiño"ko aldrakuak eta "Ibaizabal"ko aldrakuak. Onek dira Munitxa eta Ormaetxea, Itufiaga eta Totoŕika'ren aurka.

Amabijetan, Eresbatza'ren jotaldija.

Afastian, euzko-eromeŕija, ixentauko dan toki baten.

Gaubian, sendi baŕiketaldija Batzokijan eta euzkel-dantzak.

Egun oŕetan emengo emakumiak aurtengo dabe txindija batzen txaidietatik, eta txindi au ixango da ixentauko dan gauza baterako.

EZKONTZAK.—Igandian Ane Deunen txadonan iragaŕi ziran lenengo ezkon deyak, geure lagun abeŕtzale eta U. B. B. idazkaŕija dan Baŕenetxea'taŕ Efoman'enak bertako emakume liraŕakin zein dan Aŕeitio'taŕ Irene'gaz.

Baita be lasteŕ ezkonduko da Eloŕiaga'taŕ Karmel abeŕtzale zintzua, Alonso'taŕ Josebe'gaz. Artu egixu neure zoŕijon aguŕgaŕijena.

ASTE DEUNA.—Iragaŕi ziran igandian egingo diran elizkizunak aste onetan, beste urtietan lez egingo dira, ibildenа ixan ezik. Baita jakin erazo euskun zelan Andra Mari'ko txadona eguenerako azkatuko dala an daguen "Guda Ardura dun" tokija, eta bertan be egingo dira Aste Deune'ko elizkizunak.

Azkatzia nekia ixan da baña geure agintarijak lortu labe. Zoŕionak zeueri.

JOSEBA DEUNA.—Jai au igaro zan konturatu barik ze jai zan, landola geyenetan lana egin zau, Langintza Zainguak emondako agindуagaitik. Ori ta guzti be asko ixan ziran eleizkizunetara juan ziranak.

GUDAROSTIA—Santxo Eiztegi" deitxon Durango'ko aldria Lekeitio'ko aldian egotaldi luzia egin da, Bilbao'ra eruan dabe bertan egotaldi bat egiten. Oŕi dala ta ainbat lagun aguŕtu doguz ŕi onetan. Asko poztuten gara osas nagaz ikustia.

Baita be "Kiŕikiño"ren talde bat lenengo aldria egun batzuk igaroten etoŕi dira Kanpantzaŕ aldetik an egotaldi bat egin da.

Ondo etoŕija.

BATZAŔA.—Udal'eko ziñegotzijak astelenian batzaŕtu ziran Udal'ian euŕen araztak erabagiteko.

IÑARKUNAK. — Igandian be baŕiro emengo su-amatatzaĺak euŕen bigaŕen iñarkunak egin eben, aufeŕapen aundija egin dabe egun batetik bestera An egongiñan gustijak oso pozik ikusi gendun.

"EGUNA" IZPAŔINGIJA. — ¿Zu, abeŕtzalia, gomutau zara iñoiz izpaŕingi au daguala? ¿Ezta? ¿Zergaitik ete da? Ba, beste gaitik ez, bera euzkeraz argitaltzen dalako, baño. Zu, abeŕtzale, deituten zaŕienari ez zara abeŕtzalia eta gitxijagu zintzoa zeuŕe izkuntza ukatzen ba'dozu, bada bera da izkilu onena geure aŕerijuak iuŕperatzeko. Eta egiten ezpadozu bere aufeŕa zuaz. Beraŕi gaŕanzi aundijena emoteko aŕpidetu zaitez len bai len, eta eskatu egixu oŕi au zeuŕe biaŕixan au beteteko. Eta nun dagoz oŕi onek? Ba, gura badozu etoŕi zaitez gure Batzokiŕa eta an loŕtuko dozu. Eta alan beteko dozu zeuŕe biaŕixena, emonaz zeuŕe ixen abixena. Ez esan: "Nik ez dot ulertzen euzkeraz, eta oŕi dakijenentzat", ez. Lenen maite egixu zeuŕe elia eta gero nai badozu, bestiena. Euzkeldun jayo nintzan euzkeldуna azi, euzkera il ezkero ez dot gura bizi.

Erotaŕi

Gernika

ABEŔI-EGUNA.—Datoŕen iganderako, geure Uri Buru-Batzaŕak antolatu dituan jayen egitaraua, auxe da:

Goizeko zortziretan: Txistulaŕi eta Euzko-Eresbatzaren goiz-eresia.

Amaŕetan: Jaupa nagosia Andra-Mari'ko ertxadonan.

Mesostean: Aintxiñako erako aufeskua. Eŕi-Enparantzan.

Amabietan: Gudaroste-Eresbatzaren erestaldi entzutetsua, Eŕkala'ren egurastokian.

Akeit orduan: Txistulaŕien jotaldia, Gernikaŕ Euzko Batzokian.

Lauretan: Gernika'ko pelota-tokian:

Kiŕol-jai ikusgaŕia:

1g. Biñaŕ-biñako pelota jokaldia.

2g. Gudaŕien aŕteko soka tiŕa, aizkolaŕiak, santzolaŕiak eta abaŕ.

3g. "Elai-Alai" eŕi talde ospatsuko neska mutikoen jantza eta lauki beti txalokatuak.

4g. Euzko Abendaren Ereserkia, Eres-Batzak jo ta guztiok abestuta.

Guztionen ondoren euzko-eromeŕija Eŕkala'reu egurastokian.

Pelota-tokian egingo dan kiŕol jayaren saŕerea DUBAN izango da.

Uŕi Buru-Batzaŕak guzti-guztioi eskatzen dausku datoŕen igandian geure txeiko ta leyoak euzko ikuŕiñagaz goizean goizetik apaindu daiguzala.

EZKONTZA.—Mardones eta Zabalandikoetxea'taŕ Pantzeska lege gizon gastea eta Afilaga eta Elgezabal'daŕ Kistiñe anderaño liraña lasteŕ ezkonduko dira.

Buakijoe aufetiaz geure zorion beroa.

TXINDIA IDORO. — Foru'ko geure aberkide batek idoro eban aurtemin, kalean diruz beteriko sakeltxu bat.

Sakel oŕen jaubea joan beite Foru'ko Batzokira antxe emongo dautse-ta.

¡Gauŕ egunian dirua ugari eta eŕespeto barik dabil ibili be ta, edonun beragaz topu egiten dogu!

Bultz-bidean oŕen dirua egon laikeanik nok uste?

ASTELENIAN. — Ertzain-Igiletuko (Policia motorizada) mutil azkaŕak bitxabal eta bide zior guztiak ondo jagoten ditue. Ertzain oneeri eskeŕak asi dira baŕiro, geure baseŕitaŕak, baraxkiak-eta, afauzak-eta azokaratuten.

Asteleneko azokan, igaro ziran astelenetakoetan baño jaki geitxuago ikusi ziran beintzat.

* * *

Pelota-jokaldi bi ikusi genduzan astelen afatsaldian.

Lenengoan Ubila eta Malabia'ko Txikiak, nekez baño ezpazan bere, Zabaleta eta Kortabitarte'ri irabazi eutsen.

Akeit-mayan ezetariko antzik bere ezeukan jokaldia, Kortabitarte'k, bere betiko joko ederaz, aurera eroan eban eta, bai, irabazteko zoŕijan ipiñi be. Alegiña-alegin egin afen be, baña, emeretzian geratu zan.

Bigaŕenean Sustaŕa alayak eta geure efitaŕ Sangronitz'ek, Lete gudaŕia eta Ufemendi gernikaŕari irabazi eutsen.

Ezeban tantu asko galdu geure Ufemendi'k, ¡ez oŕixe! Aregaitik izan balitz gauŕ be pelota tokian gengozan.

Jokaldi oneek ikusten lagun asko bildu zan, otz-samar egoan, baña.

IBILDEUN BARIK.—Eztukagu aurten, Aste Gureneko ibildeunik.

Eŕi-Zaingoko agintariak ezezkoagaz erantzun dautse geure alkatiaren baimen -eskariari.

¡Ufengoan izan beaŕko!

* * *

Abar Igandea betiko ospeaz igaro zan.

Jaupa nagositan eta afatsaldeko eleizkisunean lagun asko egon zan

Afatsaldekoan Aitonagi'taŕ Eusebi abade gastiak egin euskun sermoia, eta euzkeraz eta edeŕto egin bere.

Belu Mendu

Bermeo

AŔAINTZA.—Egunotan gure mariñelak pozik dagoz itxas-afain-kalak emokoŕ ugaritsuak dirala ta. Beintzat egubaztenеguben eta barikuz txitxaŕo pilo galanta porturatu dabe Bai gozerik ere kendu gudaŕiñ ta bastaŕetan. Alai be alai egotekoa da.

GUDARANTZA.—Egun batzuk igaro ondoren sendi berotasun'an gudaratu dira "Gordexola", "Muñatones" eta "Itxaskundia"ko mutij azkafak. Aguŕ, anai ta adizkidiak Ongi ibili.

EŔABUN AZIJA.—Gure baseŕitaŕ bizkoŕak deskerile dabiltzaz luŕ zaingo agindaritzaz eŕabun edo patata azirik eztaukiela biar daben beste eraiteko ta.

Eŕazoia luŕ langilleaŕena. Al'bada, zergaitik ez biar dan aña azi emon eurei?

KAI-LUZE.—Eguraldi ta itxas bakiak aurtengoak bai benetan Baño gure "rompeolas" beti galdik dago. Noz langile gevago biaŕeratu eta amayera emon lanori? Itza, eŕi zuzendaŕijak dauloe.

"Euzkadi"

Euzkadi-afantzalien omenatzen idazten dau.

Euzko-abeŕtzaletasunak afantzalietan eloŕkixun oneko laguntasuna ikusi ixan ei-dau beti Bizkai'ko ispazpeŕian.

Afantzalien lana lan gogoŕa da, ta geyenetan txaŕto ordainduba.

Afiskurik-afiskurenetan ibili biaŕ ixaten dabe afantzaliak. Eta-zabidijak, laño ta enpaŕauko ixaseragozpenak be, afantzale jasankoŕen bizkaŕetara jausten dira, ba.

Afantzalien aŕtian be txalogaŕi ez diran akatzen baitzuk ixatia ba-jitekela diño, akatz bakuak banakak ixaten dirala-ta.

Akatz gustijen gotik agertuten yakena, baña, euren bijotzen zabaltasuna ei-da, euren burubakaz baño geidiarenaz arduratsubago ageŕtutia.

Omen-jai diranak iñoz aiztu ixan ez dabezan Euzko-Alderdi-Jaltzaliak, euzko-afantzaliak be ezin aiztu eyekezan.

Eta eurena daben omena ordaindutеko, aurtengo Abeŕi-Eguna autetsi ei dau: VI Abeŕi-Eguna.

Beraz, datoŕen igandian Beŕbizkundе egunian, Bilbao'ko San Mames kiroldegiayan euzko-afan zaliеn omenezko kiroldaya ixango da. Eta bertan batzen dan txindija, baŕiz, euren itxas-zeregiñetan iñardubela il diran itxas-gixonen sendijentzat ixango da.

Gure agintarijak egindako dei onek erantzun zuzena ta sutsuba ixango dabela uste da, ta itxas-gixonen eskaŕona be, laguntzale gustijekana elduko da.

"Tierra Vasca"

Eŕi ikasijen agiriŕik-agiŕijena, gutuŕiasuna ta lagatasuna dirala diño.

Eta eredutzat, Eŕi langutza Zaingo'ko buŕukidia dan Garcia jaunaren egiñen zuzena agertuten dausku: Euzkadi'ko katolikuak eraspeñik-eraspenagaz aintzalduten daben Baŕikugurena azkatasun gustijaz ospatu dagijentza'. oŕetaŕako biaŕ diran azkatasun gustijak emonaz ganera, antzoki ta onako jo'as-jai gustijak egun oŕetan aŕzera tu egin ixan dabezala-ta.

Eŕijei euren askitzazko uskurtza-era ta otura onai yaoken azkatasuna ta gaŕantzija emotia eŕi ikasijen agirija ei-da, ba.

Eta Euzkadi, alde oŕetatik, beste edozein biño mala batzuk goragо ager duten ei-da.

Euzkadi'ren ikuŕa, lana, gentzea ta azkatasuna ei-dira.

Eta benetako eŕi ikasijen ikuŕ au zapaltzeko asmoz paxiotaŕak ekaŕi ixan daben guda au iraba zitakuan, azkatasunaren aldez eskubetaratu ixan diran suizkilubak eta enparauko guda-tramankulubak be, euzkotaŕak beriala jauŕtiko ei-dabez. Eta ordez, lana egiteko biaŕ diran lankayai oratukо ei dautse ogija ta gentzea euzko-sendijetaratuteko.

"Lan-Deya"

Izpaŕingi batek egin ixan dautsazan zirikada bakan batzubei erantzuten dautsa. Euzkotaŕak egiten daben gustija txaŕetziten zalia dan izpaŕingi oŕek, ba, paxiotaŕen aurka jagiteko asmoz langiliak Gernika'n egin ixan eben batzaŕian aŕtutako asmuak euzko-langiliak atzian laga ixan dabezala-ta.

"Euzkadi"

Euzkadi'n zenbakiŕik txikijena egiten daben aldeŕdiko izpaŕingijoŕek gura leukena, ba, lantegijekaz jabetu ta lateŕijaŕi emotia ei-da.

Eta gai onetzaz Euzkadi'ko beŕi-beingo lendakaŕi jaunak Gernika'n agertu ebana, baŕiz, beste au: gurendea beriala eralduteko biaŕekuak diraла uste diran ekaŕkin-gayakaz jabetu ta lateŕijaren zainpe jarteraño be eldu leteŕkela.

Baña emetik eta beti deskaŕe diran oŕeik gura dabenera, aldetxu aundija ikusten ei-dau.

Etan baŕik zoztoŕak bideratuten dabiltzen oŕei, baña, gaŕaya elduten danian, esan biaŕ yakezan egi gustijak esango ei-dautsez. Oŕain ez, oraingo zoŕegiñik biaŕekuena paxiotaŕen menpetik abeŕija azkatutia ei-dau-ta.

"El Liberal"

Guadalajara'n eta abaŕ azken-aldeonetan eŕi-aldezliak ixan dabezan gurenda ixugaŕijak bide diraла, guda-gurenda osua be uŕian ikusten dala diño.

Gurenda oŕeik loŕtuteko baña, lagoaldetik eta Ipaŕ-aldetik oldaŕtu biaŕa ixan ei-da.

Aŕeŕijuaŕi atzerantz eragiteko guda-eŕaŕik berezijena be oŕixe dala agertuten dau.

Alde gustijetatik oldaŕtu ezkero, ba, alde gustijetakuei eŕantzun biaŕa ei-dau aŕeŕijuak.

Oŕi dala-ta, Asturias'ko guda-aufkeaŕi, gurendea loŕtu aŕtian sendo be sendo eutsi biaŕ yakelakua esaten dau.

Eguno-an gudaketa gogoŕik ez da Asturias'en egiten, ezta Guadalajara'ko guda-oñian be.

Eta eŕi-aldezlien atseden labuŕ au, beriala uaŕtu ixan ei-dabe aŕeŕijuak, Pozoblanco'ra juan eta andik oldaŕtuteko.

Eta Pozoblanco'n jazoten dana zijotzat imiñita, alde gustijetatik batera oldaŕtu biaŕa daguala baŕijon-baŕi agertuten dau. Guda-eŕa oŕi aufeŕa eruanezkero, ba, gurendea be beriala ixango ei-dogu.

"Euzkadi Roja"

Agintarijen nagositasuna ta aŕei yaoken lotsea, gauza gustijen ganetik agiŕtu biaŕ dirala diño.

Agintarijen nagositasuna gurenda-biderik zuzenena ei-da ixan be. Eŕijak emon ixan dautsen nagositasun oŕi eurekan daben gixonak baña eŕijaren onaŕen eraŕili biaŕ ei-dabe. Eta iñoz bez, euŕen onaŕen bakaŕik.

Euzkadi'k gauŕ daukazan agintarijak eŕijaren aldezlerik zintzuenak ei-dira. Beraz, eŕijagandik aŕtu ixan eben nagositasunaren gai diranak be bai.

Eta agintari guŕen oŕeik eraŕagiten dabena, eŕijak ontzat aftu biaŕ dabela diño. Batez be, baña, aufetik eŕijaz itunduta agintzen daben aldijetan.

Aldi onetan paxiotaŕen aufka guda egiten dogun gustijok ei-gagoz biaŕtuta Euzkadi'ko agintari gurenai yaoken lotsea ixaten, eta agintzen dabena onetsi ta zintzotasunik-zintzotasunenaz egiten.

Ordez, ostera, lotsa ori susijaz agintarijak diñuena mukerkeriz ezestuteko eskubiderik daukanik ez ei-dago.

Agintzadun bat, Jaurlaritza bat: Auxe ei-da eŕi ikasijak eskatu biaŕ dabena.

ZUMARDI'KO BARATZAK.—Gudia dala eño atxakiz Ertzila egurastokiko baratz edo jardiñak edozelako atontze ta begiramen baŕik dagoz. Ez ete da ba eŕijа polit iantzi biaŕ?

URI OSASUN TA EDERTASUNA Arlo asko dagoz uri onetan laneŕa eruan biaŕa. Eurok nai ta nai ekeokak dira. Ikastola egin; kaliak atondu ta baŕiztu: etxe aufiak eta arpijak poliztu: Batzoki aureko uŕ zuluari beste bide bat emon, bero aldijetan ixaten dan ats gexotegija betiko apestu dagin. Eta beste anai gauza on.

Txindija? Ori da kuŕizuluagaz edo topau biaŕ dana. Ostantzian, lanerako besuak baŕ dagoz. Au'era ba Udala. Eŕi osasun ta ederŕ alde gastuari ezta begiratu biaŕ.

EZIN DAN GAUZIA.—Gudaŕiŕik asko dagoz guda oñeratu ta Bermeo'n Baño ondikaŕen emeko txaide ziaŕ mendijan dagozien terriziyuko mutilik asko ikusten dira ostu mostuka. Ondo ete da au? Noz afte gudaŕi arazodun agindaŕijak olan jafaitu?

Danorena da bakia; danorena ixan daitela ba gudia ere. Jan bai: lan ere bai. Ostantzian ospa.

DABILTZANAK — Egunotan ainbat ezagun ikusi doguz gure aŕtian. Aita Afue, "Basaŕi", Izaurieta, Ziaurritz, De la Torre, Rezola, Afedondo eta abaŕ.

Ongi etoŕi.

VI'GAŔEN ABEŔI EGUNA ETA "SAN ANDRES" GUDASALAKO BIKUŔINAREN ONESPENA.—Gauŕ eta bijar VI'gaŕen Abeŕi-Eguna dala zijo eta bide batez Euzko Langiletako "San Andres" gudasalako gudatalde biren ikufin onespena, uŕi onetako Alderdi ta langile zuzendaŕijak jai politak eraldu dabez. Ara egitaraba:

Gauŕ, larunbata, saspi ta erdijetan: Salve-Eŕegiña Eupeme Deunaren zin txadonian, eŕijak abestuta.

Zoŕizi ta aerdijetan: Batzokiko aretoan tzaldija Urzelai'taŕ Julene andereñoak. Gaya: "Abeŕija ta Euzkera".

Amabitan: Euzko-ikuŕiña aixatu batera "Jagi, jagi", "Itxafkundia" eta "Aguŕ, jaunak" joko ditue tronpetak.

Bijar, igandia: sei ta erdijetan, goxeresta txistulaŕijak.

Saspiretan: Jaupa ta Gure-Jauna aftzen Pantzeskafen leka-dixian.

Bederatziretan: Txaide ziaŕ Euzko-langiletako eresbatzak joko ditu biŕibilketa ta kale-jiŕa politak.

Bederatzi ta erdijetan: Jaupa nagosija Eupeme Deunaren zin txadonian eta "San Andres gudasalako talde biren ikufin onespena.

Amaiketan: Artza'ko pelota tokijan pelota jokaldi polita "San Andres" gudasalako gudaŕi aftian. Aizkolaŕi, soka-ira ta beste jaitxu batzuk ixango dira pelota toki onetan.

Amabitatik ordu batetaŕa: Eŕkzila'ren egurastokijan erestaldi entzungaŕija langile eresbatzak eskutuа.

Lautat'k aufeŕantzian euzko-eromeŕija Ertzila egurastokijan.

Benetako langile ta abeŕtzale ona biaŕtuta dago anai ta batasunezko jai onetaŕa erduten.

Uaña.—Pelota-tokijan safera bat baño ezta ixango. Laurleko batekoa

¡¡Eup!!... Gastedija: igandian danok Bermeo'ra.

URKUDI

Lezama

JAUPA BAT.—Bijar, igandia, illaonen 28'gn., goxeko bederatzi'etan, Miren'en ertxadonan ixango da jaupa bat, Zarate eta Galdotz'daŕ Kepa'ren gogo aldez (goyan bego).

Dei egiten yake abertzale eta bere lagun gustijai eldu datezala jaupa oŕetara.

TXIRI.

"Gu Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Jaungoikua'rentzat" txildu bage eman ei-eban Arana-Goiŕi gure irakasliak.

Esaera au abuan, goguan eta bijotzian euki biaŕ dogu, beti ta beti.

ATZERRIKO IZPARRAK

Franco'k atzeŕitaŕen laguntza geyago nai

Ingeles ontzi-jaubeak euren Gobernuari laguntasun eske, españar piratak dirala-ta. - Mayatz aldean buŕuka gogoŕenak?-Pequeña Entente ausi nairik italiaŕak. - "Canarias" gudontzia Benicarlo aldean. - Alemania'n ba-dakie Guadalajara'koa. - Nazitaŕak Doipurua'z asaŕe.-Beste izpaŕak.

EŔIZALEAK EZIN OBETO AUŔERANTZ

Almeria.—Auŕerakadea asi dabe noizbait be, eŕizaleak, eta lekua gogor eta malkartsua dalako geldika asi dira, bañan ezin obeki.

Sierra del Toro artu dabe, eta Motril alderantz poliki doiaz. Uri au, guda oñetik 2 kilometrora dauke orain eta ageri agerian dabe.

Motril'etik alde egiten asi dirala, be paxistak, esan egin dabe.

FRANCO'K AŔOTZAREN LAGUNTZA GEYAGO NAI

Madrid. — "Informaciones" egunkariak diñona. España'k izan dituan okeŕak iruntsi eziñik ibiliko da Mussolini, Aprika'ra egin daben ostera aŕoaren ondoren. España'rantz gudari italiaŕ geyago bialdutea izan lei. Londres'ek eta Ez-sartze batzordeak eragozteko indaŕik ez dabela agertu bai-dabe.

Esanok gi jzan ala, ez, paxistak baŕiro eraso orduko aste batzuk joango dirala esan giñei, gertutzeko beaŕ ditue-ta.

Franco'k, diñoenez, laguntasun aŕotza baŕiro ta gelago artzeko amesa dau. Ganera, Guadalajara'n apailean euriteak izan oi dira, ta buŕukarako ez giro.

Mayetza ta bagila dira gudarako aldi egokienak, eta orduantxe izan liteke buŕukarik gogoŕenak gertautea.

Aragon'eko bidearen sorkaldean, mealz-tokietan eŕizaleak auŕera egin dabela diñoe. Paxistak Gudalajara uriari bonbaz erasoka jardun eben.

ITALIAŔ ORDEZKARIAK ARA -ONAKO

Paris.—Quay d'Orsay'n, Ciano kondea Belgrado'n gorabera batzuk atonduten asi dala jakin dabe.

Yugoeslabiaŕ ordezkariak diñonez, bere eŕiak Italia'n egiuneren bat burutu aŕez, Yugoeslabi Pequeña Entente dalakoan baŕuko eta Frantzia'ren adizkide izango ei-da.

ALEMANIA BE BA-DAKIE

Berlin.—Azken ilabetetan esan ez dabena argitaldu dabe emengo izpaŕingiak. Espaŕaŕ paxistak Guadalajara'n egundoko lepokadea artu dabela diñoe.

Izpaŕ ori, nunbait, "Giornale de Italia" egunkaritik artu dau, Boersenteitung'ek. Alabaña, paxista sail oŕek italiaŕ gudariak ziranik ez dabe adirazi.

GUADALAJARA'N ITALIAŔIK EZ

Valencia.—Eŕizalien egazkinlariak diñoenez, Guadalajara aldean ez da oingoan italiaŕ gudasalik agesi.

Gertuteko baŕiren baŕi, ala beste guda oñetara eroan dituelako izango da, bearbada.

"CANARIAS" GUDONTZI-LAPUŔA

Valencia.—Atzo eguardi inguruan Benicarlo inguruan ikusi eben "Canarias" gudontzi-lapuŕa.

PEQUEÑA ENTENTE EZERETZTU UŔEN

Paris.—"Le Matin"-en Belgrado'ko ordezkariak diñonez, Italia eta Yugoeslabi'ren arteko itunbenak, Pequeña Entente dalakoaren kaltezkoak izango dira.

Entente ori, bere indaŕ eta guna galdunik dala, diño Bulgari ta Yugoeslabia'k adizkidetasun egiunen lotu ebenetik. Orain, oŕez ganera, Italia'n Yugoeslabia itunbepe geldi ezkero, Txekoeslobakia lagunik baga, bakaŕik eta soil izango da.

INGELESAK, ORDEA, POZIK

Londres.—Itali eta Yugoeslabia'k egin asmo daben itunbena begi argiz jaso dabe ingeles politikuak.

"The Times"-ek diñonez, alkaŕ adizkide eta atondu bide egokia izango ei-da itunben eta egiune orixe.

ALEMANIA'KO AGINDARIEN BIUŔIKERIAK ETA ELEIZEA

Berlin.—Aita Santua'k, nazistaen irakaspen eta jokaera okeŕak gaiztetsiaz lengoan egin dauan enziklikaŕi, aleman Gobernuak egunotako baten erantzungo dautsa.

Concordato dalakoa austeko asmoa erakutsiko eta dautsan, diñoe.

Lateŕia eskubide oso eta guztien jabe dala-ta, Eleizeak zer ikusirik ez zean sarturik ez dabela adirazoko dautsa Doipurutza'ri, aleman Gobernu erantzunak.

ERAMAN-EKAŔIKA IBILTZEKO

Londres. — Ingalandaŕ ontzietako itxastaŕak ontziak zaintzeko neuŕian artzeko eskatu idote Gobernuari, ezin dutela bestela España'ra eraman-ekaŕiko ibili ta ori Inglateŕa'ko bizibideari kaltegaŕi dala adieraziaz.

Aŭetiko Abeŕi-Eguna'k gogoratzen

¡Oi gure txisiulariien jasa! ¡Arein soñu alayaki Gazteiz'ko irugaŕen Abeŕi-Egunian txaidiak betian ibili gintzazan alaikiro. ¡A, egunaren edeŕa igaro genduna!

Alkaŕ-maite

Bakoizkeri-utsa, norberakeri gorotogaŕia, lizunker'antza, griñen irakitea, oben-luŕuna dakusgu alde guztietan nabari. Iñoren eŕukirik ez zan; geidearen zoritxaŕa ta ondamendia pozbide yakoen. Oŕa zeiñen ustel dakusgun gizartea.

Ustelak zintzotzera, igeŕak ezetzera, lizunak garbitzera, oben-luŕunak atzera etoŕi yakun Kisto.

Gizarte zauritsuoi osabidean Berak jaŕi eben. Guztiz osatu egien ordezkoak laga euzan. Ordezkook biotzez maite euzan. Oŕen maite ebezan ordezkazkin, izan eban jardun aldiaren samuŕa...

Zeiñen edeŕ dan gau ilunetan argi izpia. Getsemaŕirako bidean, itun-itunetan, bakaŕtadean zeiñen biozkoiak, maitatjak Josu'ren itzak. "Mandatum novum do vobis; ut diligatis inoicem, sicut dilexi vos, ut et vos diligatis inoicem".

Alkaŕ maite egizue, neuk maite izan zaituetanez, maite izan egizue alkaŕ.

"Auxe da nire agindua; neuk maite izan zaituetanez zeuek alkaŕ maite izatea" dirautsoe ostera, be.

"Alkaŕ maite izan dagizuela agintzen dautzuet"—dirautsoe irugaŕenez.

Alkaŕ-maite... Alkaŕ-maite izate oŕeri "plenitu do legis" dirautso Paul Deunak. Lege oso esten dau.

卐 卐 卐

Kistaŕ zaitut, irakurle; kistaŕ zaraia diraustazu. Egizko kistaŕ zaitudan ala ez ezagutzeko neuŕi Kisto'ren agindu dugu.

Alkaŕ-maite izatea dogu gure agindu nagusi; alkaŕ-maite izatea dogu kistaŕon ikuŕ eta ezaugaŕi.

"Norbaitek Kisto maite dauala ba'liño ta bere geidea goŕoto bi'leu, oŕeri ez siñestu, guzuŕa diño-ela."

Geidea... maite... Nor da baiña gure geidea? Adizkidea, laguna geide estea ta maite izatea ez da zil, ez yaku latz. "Onetsi arerioak, be dirausku baiña Paul Deunak. Ori, baj, gaŕatz.

Maite izatea baiña, ez da aŕera ona egitea, arpegi onez ikustea, kalterik ez egitea. "Geide ori gose b-da, janaritu egizu; egaŕi ba-da, edaŕia emon egiezu; ori egiñaz baretuko dozu." "Si esuriet inimicus tuus, ciba illun; si sitiet potum da illi".

"Alkaŕi lagundu egiozue", danok alkaŕen ataj gara-ta.

Orixe dogu egizko maitasuna; orixe egiz alkaŕ maite izatea.

"...esa caridad, mandada con estricto precepto por Jesucristo, no se la encuentra en gran parte de los que llevan el nombre de catilicos", iñoen itzaldi baten Laburu Aita'k biotza miñez zulotuta.

卐 卐 卐

Kisto'ren alkaŕ-maite izateko agindu oi edaŕ estea ez da naiko. Bete egin beaŕa dogu. Adimenak bete-beaŕeko ezten dauana, egitez bete egin beaŕ da. Orixe da gizonari yagokonez jokatzea. Naimena adimenaren esanetara makuŕtu beaŕ da.

Judutaŕen jokalegea dogu Kisto'ren esanak onaŕtu ta bete ez egitea. Judutaŕen antzeko gaituzu izan kistaŕ asko, be.

Biotzak adimenari geiago egin eutsan Judutaŕen aŕtean. "Et audientes mirati sunt et relicto eo abierunt". Miragaŕi izan yañoezan Kistoren itzak baiña Kisto laga ta aldendu egin ziran. Goizparki edo Ebangelioak diraus-kunez.

Zeiñen edaŕa Kisto'ren agindua! Zeiñen jatoŕa ta pozgaŕia izango litzake baiña gizartea agindu ori beteten ikustea!

卐 卐 卐

Besterik gendizan lenengo kistautasun-urteetako kistaŕak.

"Kistaŕ guztiak biotz bat eta arima bat eben" dirausku Paul Deunak poz-aduŕetan.

Ez zan oŕein aŕtean gofotorik. Anai-antzo bizi ziran.

Maitasun orde gofotoa dabenak kistaŕak diranik esan al-daike?

Aldi aretako kistaŕok gejdeei, batez, be, zoritxaŕdun eta txiroei eutsen maitasuna ta begiramena, aldi aretako kistaŕ ez ziran idazleei, be, beg-begiko izan yakoen.

Kistaŕ oŕeik naiz eurotariko izan naiz izan ez bardin maite eben lagun-urkoa.

Kistaŕ garbetua zan eta kistoren arerio zitaj Juliano aŕoak bere menpekoei, kistaŕen geide-maitasuna jaŕaigaŕi ta eredutzat ipiñi eutsen.

"Euretarikoak bakaŕik barik, geuretarikoak be, janaritzen dabezan galleaŕ erlejiño gabeak (ori kistaŕei buruz diño) ori egitean, ondo jokatzen dabe."

Gauŕ, be, kistaŕon aŕtean taju oŕetako geide-maitasuna ba'lekuse kistaŕ garbatu ta Kisto'ren arerio zitaj diranak, besterik entzungo gnduke.

ARETXIÑAGA.

Burgos'ko Iŕatiyari bertso baŕiyak

Bertsolari beŕia
Dezute oingoa,
Bertso gayetan gutxi
Dakin gizajoa;
Bañan itz eta itz
Gauŕ Burgos aitzean
Bertso gogo-eman dit,
Ta oŕa jardunean.

Guda au asi zanetik
Amaika astakeri,
Entzun izan diyegu
Etsai paxisteri;
Bein ere egirik ez, ta
Geyena gezuŕa,
Ipuiñez bete dute
Onuzkero Luŕa.

Burgos'ko Iŕatiya
Dute ipuiñari,
Andik itz dariote
Ludi zabalari.
Batean "Viva Franco"
Uŕengoan "...Mola"
Aŕtean Españaŕak
Odol dariola.

Oingoan apaiza da
Iŕatia jz'ari,
Kristo'ri zoŕ zayona
Ematen Mola'ri.
Uŕen gudalburuak
Dituzu irakuŕle,
Asko ikasi aŕen itz
Ezin baidagite.

Batzuk eta bestetzuk,
Apaiz ta gudari,
España-buruz beti
Beŕiketaŕari;
Kristo'ren aginduak
Zearo azturik,
España ondamendin
Daukate sarturik.

Uskuŕtzaren aldezle
Porokatuenak,
Eleiza beren mende
Euki nai dutenak;
Maite-itzak ezpañetan
Baŕun goŕotoa,
Esku baten Gurutza
Bestean aiztoa.

"Gora Kristo Eŕege"
Saŕi mingañean,
"Aitzol", Sagarna, apaizak
Eraillik aurean
Izez diozutena
Paxistok Burgos'tik,
Ezin du iñolare
Zin-etsi Euzkadi'k.

"Euzkadi, asko maite
Zaitut (Zenbat ote...?)
Euzkadi izenik ere ez
Burgostik diote!
España Aundi Bakaŕa
Da guk nai deguna;
Len baño lotuago
Zu ta Kataluña."

España Aundi Bakaŕa
Nai dezutela, naj...?
Ordun zergatik eman
Zatika Aŕotzai...?
Sartuiozute ori
Duce ta Furheŕi
Ayetxek baitakite
Gezuŕ oyen beŕi

Abeŕtzaleon eŕuz
Gudak omen dirau,
Oŕegatik Luditik
Nai gaituzte "boŕau";
Baño Jainko altsuak
Maitero eutsirik
Iñolaere ezta ilko
Abeŕtzaletasunik.

Gauden gu beti ernai,
Euzkotaŕ anayak,
Zainduz gure baseŕi
Ta mendi alayak.
Jainko lagun degula
Lasterixo gera azke,
Ordun jakingo degu
Zein edeŕ dan PAKE.

Leaburu'taŕ Bikendi.

¿Zu beti alper?

¿Ondiño, be, ordrazko izpaŕingia bakaŕik aŕtzen dozu? ¿EGUNA'ri begiratzan bez, ikuturik bez? ¿Zelako euzkeldana zara?... ¿Eta euzkerea maite dozula diñozu? ¿EGUNA'ri laguntz n ezpa-'autzazu zelan biziko da?... Arpidetu zaite. EUZKELDUN IRAKURLE BATZA'n bezkidetu zaite ta ber-, bitartez lagundu egiozu EGUNA'ri. Gran Via, 41'gko. 2'gn. bizitzan (17.925, 17.926 ta 17.927'gn. ufutizkiñak) daukozuz bazkidetzeko ta arpidetzeko txartelak. Bertara yo.

ATSEKABE BIDIA

Aste Gurena... ¡Ixen egoki-egokija aste oni dar.etsaguna! Ixadijak ixan dabezan egunik aundijenak gogoragaŕijenak. Eurotan Josu, geure Gaizkile maitiak bere odolez ixenpetu eban geure beŕeroskuntza.

Ez eukan Josu'k geu beŕerosteko odola ixuri biaŕik. Etzan, ba, geure Jaungoikua?... Ez ete zan, ba, naikua geu zerratzeko bere naya Goiko-Aita betikoŕari agertzia? Bayetz irakasten dausku Elexa Deuna'k.

Eta, baŕiz, geu beŕerosteko gixon egitia edo gaxatutia eabagia be seme txikeŕ jayo, txirotasunean azi ta atsekabepian ibilterik biaŕekua ete eban? Ez, Lere iŕi baŕe bat, bere egunik txikeŕena gustijok zorijon-maŕalean batzeko naikua zalako.

Eta jasan eban nekaldi gordiña jasan eta bildots eŕugia lez Golgota mendira igon eta saguzaŕa lez gurutzan josita iltia biaŕekua ete yakon? Bai zera... jayotia biaŕekua ixan ez ba-yakon, jasan eta erijotz naskagaŕiz iltia gitxiago.

Zergaitik beraz, atsekabiok? Zergaitik ba-ok?.. Zergaitik odol ixuriie ta eriJotz ankeŕa?... Zergaitik?... Geure maitasunagaitik... Maite ginduzalako gixatu zan, maite ginduzalako umetu, maite ginduzalako jasan eta maite ginduzalako il...

Zetarako atsekabiok, zetarako jasarpenok, zeta iko odol-ixuritiok? Gixonak, geure lenengo gurasuak Jaungoiko-agindua tuzi ebenetik, jasarpena nai ta ezkua dau jasarpena da geure lenengo gurasuak ereiu eben azijaren igali gaŕatza. Atsekabe ogi gordiñez bere ixatia alikatu biaŕian aurkitu dan gixon bakaŕ bat ez dau iñok seindu al ixango. Orixe diñue Jaungoikua'k berak idatztako Idaztija'k: "Bustaŕi astuna daroe Adam-semiak amaren sabeletik urten eta gustijon ama dan luŕaren sabelean obiratzen dabezen bitartian" (Eccl. X, 1) Bustaŕi astun ori ezin ixan atsekabia, miña ta naigabia baño besterik.

Zetarako, beraz, Josu geure Beŕerosle kutsuge ta Jainkuaren jasarpenak?... Geuri jasaten irakasteko.

Au irakatsi zerutaŕa!... Geure maitasu nagaitik eta geuri jasaten irakasteko jasan eban Josu'k bere Nekaldi gaŕatza

Gogartu daiguzan egun aundijotan Josu'ren jasarpenak euren gogarkunaz geure beraganako maitasuna su-gori biurtu ta jasarpenak bere atz zoŕotzaz bijotzean ukutzian Josu'k gurutza lez maitekiro laztandu ta onartzen ikasi daigun.

Aulan ba dagigu jasarpenak miña barik atsegiña emongo dauskue. Orixe diñoskue deunak eta olantxe ixan biaŕ Josu'k bere erijotzeaz jasarpen-arantzak lora usaintsu biurtu ebazalako.

Atsekabe-bidia... oŕa oŕ, irakuŕle zeruŕako biderik ziuŕena, zuzenena, labuŕena.

MAITE

Aberkide guztiei oaŕak

Begoña'n eta San Mames' en nola ibili bear

BEGOÑA'KO MEZEA

Goizeko zortziretan asiko da.

Erdiko ibiltokitxoa, utsik egongo da.

Jaunartzera duazanak erdiko ibiltokitik juango dira ta jaunartu ostean euren tokietara eleiz-ertzetakoetatik biurtuko dira.

Begoña'n abesti-oŕitxoak bananduegingo dira.

Eŕiak bakaŕik abestuko dau.

Mezatan, altara-ondoan, oneitxek egongo dira.

Ebangelio edo Goiparki-aldean, Euzkadi-Buru-Batzaŕekoak eta Euzkadi'ko Gobernuko burukideak.

Idazti edo Epistola alderdian. Bilbao, Abando, Deusto ta Begoña'ko Uri-Buru-Batzaŕetakoak, Aldun Abeŕtzaleak eta Bilbao'ko ziñegotziak.

SAN MAMES'EKO MEZATARA

Mezatara lau ikuŕin eruango dira: Bilbao, Abando, Deusto ta Begoña auzodi bakotxak bat.

Ikuŕiñak eta ikuŕindunak amaŕetatako Euzkadi-Buru-Batzaŕeko Landoletan (Gran Via, 41-2) egon beaŕ dabe.

Euzkadi-Buru-Batzaŕeko Burukideak, Bilbao'ko Batzoki ta Euzko-Gastedietako Artezkariak, Emakume-Batzako Artezkariak, Bizkai ta Euzkadi Alderdi Epaikaritzako Epaikariak, Aldunak eta Bilbao'ko ziñegotziak, goizeko amaŕetako Gran Via'n, 41'gn. etxeko 2'gn. etxoiñean egon beaŕ dabe, ortik San Mames'era alkaŕekin juan daitezan.

Gorulaŕi ta iruleak Arana-Goiri'ren Uribidean egongo dira amaŕetako; San Mames'en lendakari-toki alde bietan jaŕiko dira.

Eŕitaŕak zelaian arduraz ta abertzaleoi yagokunez belbiltz

Altara inguruan, erdiko ikustokian, abeslari-zuzendariarentzat toki berezi bat ipiñiko dabe.

Meza-entzuleak talde biten batako dira, altara-eskeŕ-eskumean. Eres-zuzendariaren oaŕei men egingo dautse.

Abeŕi-Egunean, nasterik bage, bakotxa berari yagokonez belbil.

Bakotxa zelan ibili nork esan izango da-ta, oŕetarako aukeratu ta izango diranei men egin begiue guztiak.

San Mames'eko mezatan nor nun egon adierazoko dauan iragaŕkia, ikusi daiken tokian ipiñiko da.

Maŕazkia dagon tokiak lendakaritzarentzat izango dira: Lendakaritza ori oneitxek osatuko dabe; Gobernuko burukide batzuk, Euzkadi-Buru-Batzaŕa ta Erki-Burukideak, Abeŕi-Epaikaritzakoak eta Erki-Epaikaritzatakoak. Aldunak, Bilbao'ko ziñegotzi edo konzejalak, Bilbao, Abando, Deusto ta Begoña'ko Uri-Buru-Batzaŕekoak, Bilbao'ko abeŕtzale-batzetako Artezkariak.

Gurutzaz ornidutako uneetan gudariak egongo dira ta eŕai biren bitaŕteak, aruntz-onuntz ibili daitezan, ibili beaŕa dabenak, utzik geratuko dira. Erai bitartean iñor ezin egin daike.

VI'GN. ABERRI-EGUNA

KIROL-SAIOAK

Biar, goizeko zazpi ta erdietan txiſindulari-laisterketa ospetsua. Aſatsaldeko iru ta erdietan kirol-saioketa ikuzgaſia San Mames'en. Bertan batzen dana, Euzkadi alde euren bizia eman duten euzkotar itxasmutillen etxekoentzat izango da.

Abeſi-Egunari dagokion egitarau manitsuan kirolak ere baſuko ditugu. Igandea, Berbizkunde-eguna, Abeſi-Eguna.

Euzkotaſok geure burua euzkotaſ agertzeko eguna degu biar. Biar, euzkotaſok geure gogoaren zindoaz batera, geure soiu, geure gorputzaren bikaiña eta kemena ere azaldu al izango degu. Abenda sendoa beti euzkotaſa; abenda zindo ta sendoa. Eta gaur biak erakutsiko ditugu.

Eskuratu diguten kirol-egitaraua ikusgaſia da. Txiſindulariak, koſikalariak, jaurtilariak, aſi-jasotzaileak ta abar.

TXIRINDULARI-LAISTERKETA

Biar, goizeko zaspi ta erdietan izango dute txiſindulariok erteiera. Saria irabazi nai duanak, badu non jo ta noa izerdia atera

Eun aneurkin edo kilometroko bidea dute uſaturen. Bilbao (Aſiaga), Dos Caminos, Galdakano, El Gallo, Erletxes, Zornotza, Gorozika, Muxika, Gernika, Arteaga, Busturia, Sukaſieta, Mundaka, Bermeo (ordu erdiko atseden-aldia izenpetzea ta jatekoa artzea), Solube, Laſauri, Mungia, Maruri, Andrakas, Gaminitz (Plencia), Cuatro Caminos, Urdulitz, Sopelana, Berango, Algorta, Neguri, Ondaſeta, Erandio ta Bilbao.



Amabi ta erdiak ingururako amaituko dute bira. Arana-Goiri'taſ Sabin'en Avenida'n izango da elduera.

Bide tatza dute agian eta luzetxoa Baiña, saria sakeleratu nai dua.ak ez dio latza ta luzeari begiratu beaſik izango. Eta ortaraxe ere badijoaz gure txiſindulari bikaiñok: euzko-abendaren kemena erakustera ta... "saria sakeleratzera".

Ona emen oraindaiñokoan euren izenak laisterketa ortarako eman dutenak:

Laſinaga'taſ Julen, "Avellaneda" gudalorokoa.
Dermit'daſ Josu, Motordun Ertzaiñetakoa.
Vallejo'taſ Jon Bautista, "Araba" gudalorokoa.
Pelayo'taſ Imanol, Motordun Ertzaiñetakoa.
Itufi'taſ Jokin, berdin.
Goxenola'taſ Peli, Ertzaiñetakoa.
Lizaso'taſ Luki.
Elgezabal'da Joseba, "Arana-Goiri" gudalorokoa.
Ezkegarai'taſ Augustin, Artileriakoa.
Garai'taſ Jon, "Araba" gudalorokoa.
Zelaia'taſ Gotzon, "Padura"koa.
Meatza'taſ Jon, berdin.
Zarandona'taſ Alexander, "Arixtimuño" koa.
Llanos'taſ Alperda, "Arana-Goiri"koa.
Astarloa'taſ Basili, "Mungia"koa.
Itufiaga'taſ Joseba K., "Rebelión de la Sal"koa.
Zamora'taſ Estepan, "Otxandiano"koa
Etxaniz'taſ Bingen.

Oſa oſ talde edeſa ta bikain askoa. Oiexek dira biar bide bastefetako autsak dantzatuko dituztena. Zori on izan dezazutela guztiok!

AŔATSALDEZ SAN MAMES'EN

Aſatsaldeko iru ta erdietan, beste kirol saio batzuk San Mames'en.

Koſikalariak saio edeſik egingo digute Mueta askotako koſika-jokoak. Untzueta azaſak laguu ugari izango ditugu. Berak nai baiño gehago agian.

Aſijasotzaileak, soka tiralariak, jaurtilariak, mueta guztietako kirol-saioak.

Erdu kiroltzaleok biar aſatsaldez San Mames'era Kirol-saiorik ikusgaſienak ikus'ko ditugu, euzko-kirolen kutsua nabariko dezu, euzko-abendaren bikain eta kemena goratu. Erdu!

Eta dana... kiroletan batzen dan dana, ain kementsu jokatu duten geure itxas-mutilen gurasoentzat izango da. Ondo merezia dute, itxasoak zear, Euzkadi-aldez, bizia eman dutenen gurasoak.

Gora Abeſi-Eguna! Gora euzko-abendaren kemena. Gora geure itxastaſ bikaiña!

ASTEGURENA

Euzkotaſak ospe aundiz ospatu oi-darue Astegurena. Eta aurten be, alantxe ospatu dabe.

Batera ta bestera ibiltaldijak-ibiltaldi egiteko-ta aurtengo egubenguren berebiziko eguna ixan zan ixan be: argija ta ateſija.

Eta ori zala-ta, Urtzi-ſallak gurtuteko txadonetan gertatua egozan oteundegijak ikeftuten ebiltzan kistaſak, txaidiak-betian ikusten ziran.

Olaetan eta salokijetan be, egubenguren egunian jan egin ixan eben. Alan be, baña, egubenguren egunak, astegun antzik ezeban, jayegun-antza baño. ¡A kistaſtasunaren edeſa...! ¡A zinismaren sendua!

Bilbao'ko txadonak Oteungurtzalez bete-bete eginda ikusten ziran.

Barlkugurena jai aſtu zan.

Eta kistaſak, goxian goxetik jagita txadonak ikeftuten asi ziran.

Jon Deunen txadonan, iragaſita be alantxe eguan-eta, goxeko sei ta erdijetako guruzbidia euzkeraz egin zan.

Euzkerazko guruzbidera eldu ziran euzkeldunak askotxu ixan ziran. Oe-epel gozuaren atsegin-ixaretan batuta geratu ixan ziranak, baña, geyago ixan go ziran, aurki...

Arana'taſ Deunoro jauparj euzkeltzaliak irakuſi eban guruzbidia, astiro ta argi irakuſi be. Irakuſle onak eta arduratsubak alantxe irakuſi biaſ dau irakuſi be: entzuliak uleftuko daben eran.

Bestelan, entzuliak ez uleftuteko eran irakuftia, astija alperik galtzen ibiltia ixango litzake.

Guruzbidiaz batera, unerik-unera, euzkel-abesti batzuk be entzun gebazan. Belguntzaldijetan abestuten diran abestijak ixan ziran, eurak.

Ez-egozan txafto. Alan be, baña, guruzbidiari yaokazanak abestu ixan ba'lebez, egokijaguak ixango ziran. Guruzbidiak bere abestijak dauz, ba, ta polit-politak ixan be. Abestijak eta eresija be bai. Gastetxubak gintzazanian bein baño saſijago abestuten gebazan. Eta ondiño be, gure euzko-basurijetako txadonetan, alantxe abestuten dabezela uste dogu.

Entzun ixan dogun guruzbide-eresi-rik samuſena, baña, Gernika'n entzun ete-dogunekua dogu. Axe, guruzbide-eresi samuſa entzun gura genduke ementxe be. Oſetarako, baña, guruzbidia egiten dabiltzanak be, abestun jakin biaſ dabe. Euzkerazko guruzbidia ospez-ospetsu atarateko, gotik a betik gustijak abestutia lakorik ez udago, ba.

Datoſen urtian, Urtzi-lagun, beste egun bat ixango da. Beraz, ordukua n zain geratuten gara, aurtengua juan yaku-ta. Ordu onjan be-toſ.

Josu Kisto'k guratzatik oguzi ixan ebazan saspi itzak atzalduten dab-zan txonitza, Bilbao'ko txadonik geyenetan oguzi ixan eben.

Saspi itzetako txonitz oſi, ſu orduko txonitza esan oi dautsagu. Eta alantxe da ixan be. Amabi amabijetan asten da', ba, ta iru-iruretan amaiu.

Jon Deunen eſtxadonan Ufutia'taſ Gotzon Aba argijak oguzi eban. Eta Aba onek, lenengua be ez dau-ta, bere zeregiña ondo bete eban.

Atzalpen-biaſtietan Schola Cantorum Bilbao'ko abesbatz ospetsubak abestuten eban, Zubizaſeta ospetsuba artezkari zala abestu be.

Ufutia Abearen itzaldi edeſa pozik entzun ixan ba zan, Schola Cantorum abesbatzaren abestijak ez ziran poz gitxijagoaz entzun. Ifun-eresija baño samuſagorik, zer?

Saspi itzetako txonitza amaiu zanaz batera, aſatsaldeko iruretan, Andoni Deunaren txadonan euzkerazko aguſtzea asi zan. Aguſtzea amaiu zanian, baſiz, Bakaſtadeko txonitza.

Bere Seme maſia ilda gero bakaſik geratu ixan zan Ama Neskutzaren txonitza be euzkeraz ixan zan.

Belaustegi'taſ Pantzeska jauparija ta euzkel-idazle argijak oguzi ixan eban oguzi be. Beraz, "Tabirataſa" euzkel idazliak oguzi ixan ebala esanezkero, euzkera garbija erabili ebala be esanda dagola uste dogu, ta atzalduteko aftu ixan eban gaya ondo ateraldu ebala be bai ¡Euzkerea dan edeſa ta entzungaſija! Euzkerea baño beste elerik entzun biaſik ixango ez dauan eguna, ¡noz elduko ete-yako Euzkadi'ri!... Egun ori iñoz eltzen ba-da, eldu, gure Euzkadi mate au ludiko donokija ixango da.

KATOLIKOEN IRITZIAK

Gudate au ez da uzkurtz-aldeko gudatea

Zer egin diete paxistaſak aſapatu dituzten euzkotar abadeai? - Eleiza katoliko ta Euzkadi'ren martiri ditugu.

Izenpuru orixe ezaſi dio Louis de Brouckere'k "Euzko-Deya,,'n argitaratutako bere idazlanari. Ba-dirau oraindik ere gudateak. Bat-batez sortutako Erkal-aldeko gudariak aſitutа utzi dituzte ainbat eta ainbat italiaſ eta alemanian gudari. Lengo batez ondo dakijan ingalandaſ izpaſkari batek zionez, 100.000 baiño gejago dira erbesteko gudariok. Azkatasun-alde odola ematen batzuk eta lege-austen, bakea ondatzen bestetzuk! Nabarmenkeri gordiñagorik!

Argi ta garbi dakusgu gudate onen amaia. Geuretzat da gurenda! Baiña zenbat odol-ixurtze gaurdaiñokoan eta oraindik ixuri beaſ dana. Odolaren goſi ta edeſa! Laterri-aſteko arauak obeto betetzeko ardura izan bakute, ez zan ainbeste ixurtzerik izango. Badute biotzik? Gaurdaiñokoan—oſelaxe dio Brouckere'k—españaſak ziruditen kijkijen: ez dute laguntzarik izan ezta adixkide-min askorik ere. Baiña, egiñak besterik erakutsi digute. Aurerantzean begiramen gejago izango al dute? Betoſ lenbailen erabaki ori! Zenbat eta laisterago, ainbat odol-ixurtze gutxiago.

Beste arlo guztiak bastertu ta bat-bakaſik azaldu nai nioke gaurkoan irakuſleari. Gudate au uzkurtz-aldeko gudatea dala? Uzkurtz-aldez eskuratu zutela paxistaſak gudaizkilua? Uzkurtz-aufka jaiki giñala gu? Baietzkoa erantzun oi dute burugabeko askok eta askok. Oſelakoxea da askoren nerda.

Egia da eleizak ere ta abadeak erail dituztena; egia da negaſgaſikeria ugari burutu dutena. Leku baten baiño gejagotan, itxi egin dituzte eleizak. Egia da. Baiña, Eleizak asko ta asko jasanbeara izan badu, jasarpenok ez dira izan gogoarekikoak. Eleizak ere, abadeak erail... Ez diote katoliko uzkurtzari iguin egin. Katoliko diralako ez dituzte eleizak ere ta abadeak erail, naiz ta gu oſelako egiñai negaſez lotu.

Euzkotaſ katolikuok, Jel-Alderdikideok, Gobernu-alde diardugu. Danak dakite ori. Ugari ditugu geure artean abadeak. Zer egin diete paxistaſak aſapatu dituzten euzkotaſ abadeai? Eleiza katoliko ta Euzkadi'ren martiri ditugu. Epaitegira eramateko asti gabe leporatu zieten eriotza. Baſuan irakiñez, gorde eziñez, zeukaten azkenengo esan-naia azaltzen ere ez zieten utzi. Txakuſ-antzo eoftzi ere eoftzi zituzten euretako asko. Eta Golkoaren oiñordekoen odolaz eskuak goſitu dituztenak Eleizaren jaſaitzaile jatoſak diralа esaten...!

Ez dute Eleiza aldez guda-izkiluſik eskuratu! Ez! Golkoaren oiñordekoen odolaz goſituta dituzte eskuak eta erailketa ezetzgaſiz loituta euren gogo animak.

"Esprit", Frantze'ko aldizkingia, erabili degu eskuaftean. Abade baten idazlan bat irakuſi degu bertako oſietan" Gaur-egunez gure aftean degun odol-ixuntzeari lotu dio idazkortza. Ez paxistaſen alde ta ez Gobernu alde, ez du azaldu bere iritzirik iñon alde. Idazlea, "bere onbide ta jakintza bide, guzti-guztiak begiratu ta maite dutena da", aldizkingiak berak dionez.

Ona emen idazlan ortako zati batzuk: Argi ta garbi dakusgu, España'n, politikagaitik baiño, baſuragoko arazoagaitik, sakonagoatzatik, gizaſte-arazoagatik gudukatzen diardutena. Bai batak eta bai besteak. Aberatsak langileari buztaſia nai diote ezaſi (XIII'gn. Leon Doipuruak dio ori); antziñako mofoiai antzeko buztaſia nai diote leporatu. Eta España'n goraberako aundia softu dezake jokera oſek. Alde batekoak, gelentzuenak beiſpein, aberats-zaleak eta aberatsak dira. Beste aldekoak, ia-ia langileak baiño ez dira. Paxistaſak irabaziko baluteke, euren esku ljtzateke Gaberastasun eta diru-arazoa bakaſik, eſi-zaintza ere euren esku legoke ta bururik jasotzen ere ez lioteke laketuko langileari-kristautasunak berak eragingda ere jasoko balu langileak burua, ez ljoteke ezer iñoren mende, mofoi, aldezle gabe, jauntxoen jolasgaſi ljtzake. Eta onez lortu ezin izan dutenean, guda-izkiluz ezaſi nai izan diote bizibide ori aberats jendeak. Gu, zuzutzaren gose ta egaſi geranok, aberatzen gejegikeriak gaiteztеari lotu gera beti. Ez degu guk norberekoikeriak ase ta griña makuſak ase ta aundikeriz bizi zale diranen alde jokatu, bizitzeko aiñz besterik ez bada eskatzen dutenen alde baiño."

Oſelakoxea zan XIII'gn. Leon'en begi zolja. Eſiaren muiñera jotoko esan zjen katolikoai, abadeai batez ere. "Eta ¿zer da eſiaren muiñera jotea, bera antzo biztzea baiño, zuzenbidezko danean bere aldez jokatu baiño, bere onaren ardura izatea baiño, bere okeſak barkatzea baiño, bere adimena zofoztu ta bere gogoa lantzea baiño?"

Oſa oſ bi eſi aurez aure. Gudate gordiña dute etenzabean. Batu egin beaſ dira. Nola batu? Eſiaren etsaiari, benetako eſiaren etsaiari geure burua makuftuta? Ez? Ez makuftu zuzenbide-aufka dabilenari bururik! Bekokia zut, aurpegi-aurez, biotza zabal, erakus, ori bai, erakus etsaiari ere agertu oi diogun naitasuna, ardi galduarentzat geure kolkoan degun eſuki bizia. Erakus!

Akilana

Urtzi osokataldun ez da, atalge utsutsa baño, irazakijak baña, gusti-gustijak osokataldunak dira, atalpe utz-utzik batxu be ixan ez da.

Au dala-ta, Akino'taſ Toma Deunak ixea ta ixatia bat bera ezin dadikezala diño, Urtzi'gan dan atalge utsez "ixea ta ixatia" eurak be bat baño ez dirala, irazakijak, edozein dala be, gitxijenez atal bi bardingiak ixan biaſ dauzalako, bestelan Urtzi aña osokatalge dala, Urtzi baxen atalge ta Urtzi ixatia ixango leukelako.

Au ta gusti be baña, "ixea" ta "ixatia" banan zertu ez dagikezanak dira ixan bako ezer ixan ez da, "ixate" bako "ixearik ixan ez dadikeako.

¿Baña ulermen-argiz "ixea" ta "ixatia" bi bananguak dirala ikusi ete dagikegu?

Onetzaz, Toma Deunak esan dauskun irargija naikuatzat etsita, zurituago biaſik ez dogula etsiten dogu. ¿Baña bi bananguak dirala, "esencia" ixa dala, "existencia" itza ¿zein ete-da?

Urtzi ez dan "ixa" irazanlerik ez da, "ixatez-ixakija" danik Urtzi baño ez dalako.

"Ixeak" ba, diranak dirala, guk orain emen esan gura dogun "existencia", "ixa" diran ezkero, eurena dabe, eta ixa ixango diran-aſtian be eurena ixango da, "existencia" au kentzen dautsegun ezkerotik ezebeza ixanda.

Eta iraunau euzkerea "te" atzizkiz ez ete dau egoki adirazten? Nire gardiz bai, iraуna dan eraz jaſaitze bat baño ez dalako, eta jaſaikuna azaltzeko "te" atzizkija erabilten dogulako. Beraz, "existencia" ixa-iraуna baño ixan ez da, euzkeraz "ixate" ixenez egoki esango dogu.

TABIRATAŔA.

Bilbao'ko kayeko Lan-batzandea

(GARBITASUN ORDEZKARITZA)

Gabaſa-jaube eta kayeko ontzidunei ots egiten dautsegu, kalegane lekuen, jagolatza eta gabaſaen zergak, 1 eta 2 muetetakoak zor dituen emonbeaſak ordainduteko, epe bat emon yakela adiraziaz, Eſi-Lan zuzendaritzaren erabagi baſien arauz. Epe ori, uſengo ila, jolalaren AMAR'garena artekoa da, eta epe ori ordaintzeke iragan ezkero, bortxa bidez kobrauko dogu, dagokiezan beste zigoſak bidezko izan ezkero ezaſiaz, ganera.

Bilbao'n, 1937 epalaren 23'gn.—Lendakaria, Urondo'taſ Eſikarta.

Laterri-Batzan gudateari buruz

Berean oraindik ere Italia

Laterri-Batzako ordezkariak, opor-egunak gaiñean badituzte ere, oraitzu batzar egin dute ta Abisinia ta España'ko arazoari ikutu Graziani mariskala il zutela ta, italiaſak Abisinia'n burutu dituzten basatikeri ta eriotzak gora eraiketak bera jardun zuten batzar ordu gienean.

Mr. Henderson'ek artu zuan lenengo itz. Italia'ri ez diola gofotoſik, baiña, ezin diola ipar amerikaſ ordezkariari sinisbu gabe utzi. Italiaſak Addis Abeba'n basatikeri naſdagariak burutu dituztela esan ei-du ipar-amerika ordezkari oſek eta berak sinistu egiten dal-esan du Henderson'ek. Zlatz sinistu ere

Zuzen zebilen Negusa—jaſaitu zuan Henderson'ek—: bide zuzenetik zebilen arazoa Laterri-Batza'k aztertu bear zukeala esan zuanean. Diotena egia bada, eta Ginebra'ko batzar oſek lotsa-izpirik izan, italiaſen egitadai ezetzkaſi iritziko lieke ta.

MADRID'GO guda-izpaſak

Madrid. — Egunotan bare-samaſ dagoz Guadalajara Ipaſaldean.

Atzo goizez ta aſatsaldez, be, baketan izan dira.

Bake-egunotan, baiña, guztiz lanpetuta dagoz erkaldaſ gudariok. Guda tokiak eta guda-lubanak egiten diñardue. Paxiston indaſak neurtzeko asmoz joaldituxu batzuk, be, egiten dabez. Suagalariak goizean goizetik asita, paxiston guda-toki ta guda lubanak suagatzen jardun eben.

Egun argi ta garbia izan zan eta, erkaldaſen egazkiñak paxiston saſlok iru edo lau aldiz suagatu ebezan.

Erkaldaſen suagak egundokuetan zapustu ebezan eta galtze aundiak izan ebezan.

Paxiston egazkiñak Madrid, Guadalajara ta Alcala de Henares suagatzeko asmoa izan eben. Egazkin-aurkako kañoiak ekin eutsenean eta erkaldaſen "eizakoen" basfundadea somatu ebenean, iges egin beaſa izan eben paxistok.

Igesi uazala, paxiston "Fiat" bat zabunka ta beruntz uala oartu eben begira egozanak Zer jazo yakonik ez dakie ondo; erkaldaſ kañoien suageak jo eban ala zuzendaria zauritu eutsen.

Pingarron baſenean, erkaldaſenen aurean paxistok dabezan gudatokiak suagatu ebezan eſ-aldezleak Jarama'ko guda oiñean. Egundokuetan suagatu ebezan.

Pingarron gaiñean eſ-aldezleak daukezan guda tokietatik, be, zirikatu ebezan paxistok.

Goizetik eſi-aldezleak burni bide-guratzeok eurondu naiez ibili ziran eta eurondu, be, egin dabez, sail onetan, guda-toki baſiak

Avila'ko sailetan erkaldaſak Navalperal de Pinares suagatu eben biz'-bizi.

Madrid ondoko guda-tokietan bare-bere egon dira.

ESPAÑA'KO GUDATEARI BURUZ

España'ko gudatea artu zuan ondoren mintzogai Henderson'ek eta Italia'k "borondatezko" edo dana diralakoak españaſ latefirik ufutiratzen ez'baditu, "ez sartzeko" kontuari or konpon egiteko ordua etoſi zala. España'k baduala guda izkiluajasotzeko ordu

Beste aldun batek itz egin zuan ondoren. Ez sartzeko kontua ta auntzaren gaſ berdiko estula berdin-berliñak zirala esan zuan. Ez dagola, gaiñera, ortan jaſaitzerik.

ITALIA'K NAI EZ GUDARIRIK ETXERATU. FRANTZE GOGOŔ?

Lloy George itzlari. Italia'k españaſ latefirik gudaririk nai ez baditu etxeratu, Frantze'k neuſi gogoſak aſtuko dituala Frantze'k ate guztiak zabaldu ta gudariak bialtzeari baiño ez dio ekingo.

Batzar-lendakariak, gauzak estu ta lafi zeudela gaiñeratu zuan eta Italia'k berean jaſaitzeko asmoak baditu, Frantze'k zerbait gogoſ erabakitzea baiño ez zuala izango.

"Eguna"ren 17818 URUTIZKIÑA

ASTURIAS'KO guda-izpaſak

Gijon — Atzo eguardi ostean, ordubatak ostean Gijon ingurura paxista egazkiñak etoſi ziran eta Musel gaiñean bira-biraka ibili ziran Beingoan jo ebezan adaſak eta eſitaſ guztiak gorde ziran gordelekuetan.

Suagaketarako bost egazkin aundi ta sei eizako ziran, agertu ziran paxista egazkiñak. Eurek nai ebenik ez eben lortu.

Musel'en amaſ suaga jaurti ebezan eta geienak itxas ertzera jausi ziran. Zauritu bi, baiño ez ziran izan.

Goi-goian ibili ziran egazkiñok eta itxura dagonez Musel'go burni bidea aputu nai izan eben, portutik eta porturako eramanekaſia eragozteko asmoz.

Egazkiñok agertu ziranean Gijon'go egazkin-zelaitik lau egazkin aizetu ziran eta paxistenok iges egin eben.

Guda-oiñetan izpaſ jakingaſirik ez da; lengo senean dagoz ta guda-toki giñan diñardue lelalt-u.

BATETIK ETA BESTETIK

Frantze ta Inglateŕa'ren indaŕak paxismoa moztuteko gai ez ete? ("News Chronicle")

Alemania'k Concordatoa ausi.-Ingeles izpaŕingiak diñoena. Italiaŕak iŕi egin dautse ingeles gobernuari, diño Lloyd George'k.-Loucci italiar kenerala Guadalajara'n il da.-Frantzetaŕen labankeriak.-Beste izpaŕak.

ARAGON'GO GUDA IZPAŔAK

Erdi-aldeko sailetan—Atzo goizetik erkaldaŕen suagalariak paxistak Villafranca ta Portillada'n dabezan gudu-okiak suagatu ebezan. Guda toki gudu-okietan jausten ziran erkaldaŕen suagak. Galtze aundiak egin yakoezan paxistoi.

Alcubierre mendi sailean ikusten ebiltzan erkaldaŕ talde batekoak, paxistu-alde bat idoro eben eta iges eragin e sen; iges asi zirancan iru zauritu eutsezan

Gabaz erkaldaŕen egazkiñak egazkada sundiak egin dabez ta paxisten sailak suagatu. Zaragoza'ko gudaletxeak, be, suagatu ebezan eta suagaketa ori egin ostean atzo goizaldeko ordu bietan biurtu ziran euren zelaietara erkaldaŕ "txoriok".

INGLATEŔA'KO GOBERNUA ITALIA'REN EDAŔKEI-BILA?

Londres. — Laborista buru dan Lloyd George'k Abisinia ta España bere mende eukiaz, Mussolini'k Inglateŕa'ri Mediterraneo ta Mar Rojo'tik ibilpide bage laga nai dabela Inglateŕa esan dau.

Mussolini'ri arpegia emotea nai dabe laboristak Lloyd George'k derakuskunez, baiña Inglateŕa'ko Gobernua'k Italia'ri begiramenez begiratzen dautso. Inglateŕa'ko Gobernua'ren aldeko Nagusiak aitzen emoten dabenez, arbestetaŕak España'ratzea eragozteko itxas-zainketa zialza egitea nai dabe pantzetaŕak, baiña Inglateŕa'k zainlze oro Frantzia'k eta Inglateŕa'k bakaŕik egiterik ez dau nai.

Italia'k Inglateŕa'ri Gibraltar kenduaz bideak eragotzi naiez ta Baleares'en bitaŕtez Frantzia'tik Apirka'rako bideak esitzen asi da—Lloyd George'k esan dabenez—. Orixe lortu naiez dabil Mussolini—jaraitu eban—eta guk ez dautsogu eragozten asmuok egi biurtutea.

Italiaŕen gofotoa poztu dogu—iñuan azkenez—baiña gofoto ori piztearen eŕurirk ez dauka Erbeste-arazo Arduradunak. Jaun ordun zer dala-ta asaŕe izango dira? Oŕain jaramonik-eza baiño gofotoa naiago dot nik neuk. Inglateŕa'ko Gobernua'k baiña italiaŕen gofoto bariK erespena, jaramonik-eza lortu dau ta orixe tamala."

ALEMANDAŔ IZPAŔINGIAK

Berlin. — Alemania'ko izpaŕingiak Grandi'ren itzak ez eukela indaŕik, Italia'ren Gobernua'ren izenez esanak ez zirala-ta diñoe.

Rusia'ren aurka egundokuak diñoezta Italia ta Yugoeslabia'ren itunbena goresten dabe.

LOUCCI ITALIAŔ GUDALBURUA GUADALAJARA'N IL ZAN

Berna. — Guadalajara'ko joaldian Loucci italiaŕ gudalburua il zana bai-eztu da. Gudalburuoi italiaŕ gudariak eurak erail ei-eben eta au italiaŕentzat txaŕago da.

Jazokun onek eta italiaŕen erkaldaŕengana iges egiteak, Italia guztia paxista-zale ez dana darakusku.

CLICHY'KO JAZOKUNEN EŔUDUN

Paris.—Clichy'ko jazokunak asertzen diñarduen epaikariari naiko argibide bialdu ei-dautse jazokun oŕein eŕudun pantzetaŕ paxistak dirana agertzeko.

Paxista-zale danok lasteŕ espeixeratuko dabez ausago, La Rocque asi ta Ibarnegaraj artekoak.

Oŕeik daben eŕuari yagokon zigoŕa sei ilabetetik urte birako espetxea da.

FRANTZIA ITALIA BAKEZALETU NAIEA

Paris.—Quay d'Orsay'n juan-etoŕi aundia erabili dabe. Ivon Delbos ikertzen politiko urtenak izan dira. Rusia'ko ordezkariak, Italia'koak eta Alemania'koak ikertu dabe.

Alemania'ko ordezkariak Italia'ko Gobernua'ri erbestetaŕ gudariak España'tik erbesteratute ari eragozpenik ez dagiola ipiñi berak eskatuko dautsola egindu ei-dau.

Frantzia'ren ordua eldu da esan ei-dautse Delbos'ek bere lagunen batzuei.

Cerruti Frantzia'ko eskertaŕ izpaŕingiak italiaŕ gudariei iŕi egiteak mindu egin ei-dau ta Roma bakezaletzeko biŕea ori ez dala esan ei-dau.

INGLATEŔA'KO IZPAŔINGIEN ABURUAK

Londres.—"News Chronicle,,'k diñonez Frantzia'k eta Inglateŕa'k alkartuta paxista lateŕien laŕegikeriak moztu daikezala ta moztu, be, egingo dabezala diño. Itxaropena ta uste ona izan daikez.

"Daily Herald,,'ek Duce ori baretu daitela eskatzen dau. Lengo bideak laga edo bestela "Ez-sartzeko Legeak" ausi egin dabezana agertuko ei-dabe ta Italia'ren lepo izango ei-dira ondoren guztiak.

"Morning Port" Eden'en izpaŕingiak Grandi ta Italia'ko Gobernua'k eritxi bat ez daukela esan dau. Izpaŕingi oŕen ustez arazo guztiak atondu daikez, zail diranaren.

INGALANDAŔ IZPAŔINGIAK ITALIARI BURUZ...

Londres.—Italiaŕ "borondatezkoak" España'tik etxeratu nai ez izateak, zarata aundia sortu du izpaŕingietan. "Morning Post" izpaŕingiak dionez, oraingo ontan, Inglateŕa ta Italia arteko artu-emanak eragozpen sundiak lortu dituzte eta gerokoa, etorkizuna, España'rj dagokiona batez ere, oso iluna da.

Lord Plymouth'ek jardun-aldi luzeak egin ditu Mr. Eden'ekin. Gertu dago Inglateŕa'ko.

Pasku-astelenez. Kontrolari beaŕ bezela ekitzeko prest dago, Batzorde txikiak zearo arloa atontzen badu.

* * *

Londres.—Oraintsu ziuŕtatu kontrolaren ardura duan Batzordeak españaŕ lateŕiko itxasbaster eta mugak zaintzeko delegauak izentatu dituana.

Kontrola, ziatz-ziatz, astelenez, 29'gnz., asiko da.

Itxuraz, Italia'k makurtu egin du burua. Delegauak beiñepein Batzordearen erabakiak ontzat eman ditu.

ALEMANIA'K AITA SANTUARI IRUZUŔ EGIN

Roma.—Reich Gobernuak Roma'kin egin zuan Itunben edo Konkordatua, apuŕtua egin duala ziuŕtatu jakitunen batzaŕetan.

AU TA ORI

Alvarez del Vayo'k Londres'era biali dauan egiria.-Legeak austen italiaŕak, eta beste eŕiak kokil.

ALVAREZ DEL VAYO MINISTROAK INGLATEŔA'KO GOBERNUA'RI IGOŔI DAUTSAN AGIRIA

Lenengo.—España'ko bidezko Gobernua'k gudu-zkiluz ornitzeko eskubidea berana dau. Paxiston matxiñadeoi aspaldi amaitu-ko zan, onen galtze aundirik gabe, Europa'ko Lateŕi edo Estado askaltzaliak España'ko Gobernua'ri lagundu beaŕa ebenez, lagundu ba eutsen paxista talde asaldariok menperatzeko. Lateŕi oŕek Gobernua'ri lagunduten ez eutsen bitartean, Europa'ko Estadu paxistak España'ko paxistok iñundiko izkiluz ornidu ebezan.

Bigaŕen.—Itxas-zainketa arauak diñoenez. "Ez sartzeko Batzorde,,'ko diran lateŕetako salerosketa itxasontziei. lateŕi oŕein izenez agertu ez da'tezan eziten da bez batzuetan arau batzuen indaŕez: España'ko Erkal Gobernua'k, erkaldaŕ ikuriña daruan itxasontzirik ikusten, naiz izkiluz naiz janariz beteta juan, itxasoak zaintzen dabiltzanei ez dautse laketuko oŕetarako eskubiderik ezin izan daike ta.

Irugaŕen—Gudea asi zan ezkero paxistei lagunduta lagundu ibili diranen eskuetan kontrola edo itxas zaintzea istea legegabekeri aundia da.

Lateŕi Batza'ren itunbena ta Lateŕ-arteko Legedia ausiaz, itxas zainketarako aukeratu dau Italia'k paxisten alde gudatzen gudaloro osoak daukaz.

Epa'laren 13'gn. Lateŕi Batza'n igoritako Gobernua'ren agiriak argi ta garbi azaltzen da italiaŕen eta alemandaŕon lege austez, izkilu ta guda gaiak igoŕia ta igoŕi dabiltz eta.

Laugaŕen.—Oraiñarte, batez, be, azkenengo lau ilabetietan erkaldaŕon kaltez ta paxistoi laguntzen alegiñak egin dabezan alemandaŕ eta italiaŕ gudontz'en ardurapean itxas eŕtzak zaintzea istea ezin onartu daikegu: orain itxas-zaintzea ta ikusketea aikiku'u artuta izpiazgo lanetan la gunduko leuskioe paxisto'ta.

Bosgaŕen.—Urtaŕilaren 8'gn Inglateŕa'ko Gobernua'ri bialdutako oŕetan aitzen emoten zenez, itxas zaintzeoi belutxo asten da; paxistok alemandaŕak eta italiaŕak igoŕitako guda izkiluz ta gudariz ondo ornidu ostean.

Seigaŕen.—España'ra gudariak erbestetik bialtzea otsailaren 20'gn. gebendu zanaren, epailaren 8'gn Cadiz'eratu ziran italiaŕak, jatoŕi guztietako izpaŕak diñoskuenez. Zer jazoko zan adierazo eban España'ko Erkaldaŕ Gobernua'k orduan, be.

España'ko aurzia españaŕak eurak erabagi beaŕ dabe Inglaterra'k azaldu dabenez ta España'ko Erkaldaŕ Gobernua'k diñonez ta España'n dagozan erbestetaŕak erbesteratzeko geriakizunak egiten "Ez-sartzeko Batzordean" asteko dagozala, italiaŕ eta alemandaŕak etoŕi datoz España'ra.

Oraingo kontrol asmoan akats asko da goz ta paxistei laguntzeko bideak zabalik, esi bage. Egazkin kontrola be, beaŕ litzake ta Mediterraneo aldea Alemania'k eta Italia'k zaindu-ezkero, egazkiñez edozein guda-tresna ekaŕi daikiue paxistoi; oŕez gaiñera Canarias ugarteetarako kontrola geroago astea, be, asaldariek-alde da ta erbestaŕ gudarien arteko etsi beaŕ dira maŕokitaŕak, be, ta maŕokitaŕok erbestetaŕ ez estea Gobernua'ren kaltez da.

Italia gudontziak españaŕ itxasertzetan egotea Lateŕi Batza'ren legeen kaltez da ta lateŕi batez, be, gudontzion egoera ta ibiltakaŕen, bere asaŕea ez erakustea mingaŕi yaku. España'ko Erkalari dagitsoezanak Legedi guztien aurka dagoz.

Oa'oi Julio Alvarez del Vayo'k izenpetzen dau Valencia'n 1937'gn. epailaren 22'gn.

EL'Z-JAYAK

Eguen eta Bariku gurenez

Azken egun bi oneik, Eguen eta Bariku guren, euzkotaŕok aspaldiotan lez ospatu ditugu. Aste santuko jai andi onei dagokienez, paxisten guzuŕak eta iraintsmoak orañartekoak lez, guzur uts geldi dira.

Iragaŕitako eleizkizun guztiak zearo beste izan dira Bilbao onetako eleizetan eta Euzkadi'ko jaurlaritzaren agindu-ean dagozan eu'aldeetan. Sinismen egun andiok ez ditugu zorionez ukatu oz aztu eutzkotaŕok, eta aufetikoen orpoz orpo gabiltzana argi agertu dogu.

Are geyago. Eleizetan ez ezik, eŕian, kalean, argi eta erabarigaŕi. ezagun izan da zein egunetan gagozan. Eta eŕiaren asmoa agindariak jaso, eta aurten, atzokoa, Bariku Guren eguna, Langintza Zaingoa'ren aginduz be jai oso izan dagande bai'litzan etsia.

Lantegi eta saloki ta dendak itxi eta ertsirik izan ziran atzo, eta kalez kale ta eleizarik eleiza ibili zan jendetzak zerzioz ori egin eban esan beaŕik ez. Eguraldiak be alangoxeak izan ditugu.

Ez dau iñork txistik atera, egun baketsu eta ezagunak izan dira, gogoangaŕiak bentan be. Gazteiz'ko itaiiz esandakoak esan ondoren, gizontasunik ba'dau ori esan ebanak, aren erantzunpena bai andia munduaren aufe! Aren erantzun beaŕa bai ainbeste gogoen aufe!

Antziñako esaera googari: begiak ditue, belaŕiak be bai, baña...

* * *

Andoni Deuna'ren eleizan izan genduan atzo euzkelduak geure eleizkizuna Bilbao onetan.

Aratsaldeko iruretan, eleiza beterik zala, euzkerazko agurtza eta Bakartadeko sermoia izan genduzan Itzaldia. Belaustegi'taŕ Pantzeska jaupari argi eta eurkeltzale eŕimeak egin eban eta biotzera gipen andiz egin be.

Guda idazki agiriak

Esker gabea aiz. Alako alegiñak egin gizonari eta alare uts. Zer nolako eguna uts-egin ukan ez dakik ondo! Ura eguna motel Joseba Deuna egunez igaro genduna. Egualdiya ere gurekin genian. Bermeotaŕ eŕiyakin batera edeŕki igaro genian.

Goizetik, goiz, asi ukan jaya. "San Andres" saildiko eresbatzak eman zian aŕera. Ereslari jator obek nekatu zizkiten edeŕki euren bulaŕak. Egun guztian ixildu ere ezituan. Eta jator jotzen ditek gero!

EGUNA'k argitaratutako egitarau osoa betea izan ukan. Meza, ikuriñonespena (amandrotza, Barandiaran' daŕ Arantza, andonaindaŕ neskatil politak egiten zualarik), txiŕinga-laistertza, oñ-laisterketa, ukabilketa-jayo (diru pilo edeŕa batu ukan jai ontan), dana guk nai bezela irten uan, azkenean euzko-eŕomeriya ere guztiz alaya izan uan.

Ikusten dituk zer nolako jai politak, euzko usayez jantziyak, maitasunez beterik eratuak, euzko-biyotza ta esku-zabaltasuna besterik erakutsi etziutzenak., eta alare izan dituk zerbaiten akatza arkitu djotenak. Egi esaten diat samindurik natxiok.

Jai oyen guztian "alma mater", esan oi dan bezela, ordiziaŕ gure lagun bat izan dek. Azkaŕa bera, oso azkaŕa. Nik zekiat nola ibili izan dan aufeko egunetan eta egun artan bertan ere. Abil, ua bezela, joan Bilbaora, jo zak Lekeitio'ra txiŕinga edo bizikleta bila, abil aruntz eta onuntz jai guztiyak eratzen. Mendi'tik jetxi ta atsedendu beaŕean abil lo-lapuŕean gabari, ezer egin dekela uste dek?

Lanpe artan eta arazoak ire buru jabe diran une aletan egin ezak jayaren agerketa erderaz eta lotsagaŕitzat joko aute.

Euskerari maitasunik ez ba genio bezela "Itxarkundia"taŕok. Gure saildian ainbat euskera iñun egiten ez dala apustu egingo nikek.

Euskera maite? Maiteko ez diagu bazortzi ilabete zemaizkiagu-ta Aberiya eta onekin batera euskera aldezten izkiluak eskuan ditugularik?

Ikusten dek jagun zer gertatzen dan? Abil biziya aŕixkatzen beste asko goxo goxo egon diran bitartean eta alare esker gaiztoa besterik arkitzuko ez dek. Gezuŕa ziruditk gu oŕelakoak izatea. Ondo zegok gudariyok balaz jota jaustea, baño batzun batzuen lumagaz minberatzea, ez.

Guk ere amaika idazle ta iziariri zerbaitzuek esango genizkakek idazki bitartez baño ez diagu iñor minberatu nai, naiko minbere bai dituk besteja ere aldi gaŕatza abek, ez deritzaik?

Ez diat gai ontaz geyo jaraitu nai, zioka ibiltzeko egunak ez dituk gaurkoak beaz beste arlo batetzaz jardutera natxiek.

Larunbatez beŕiro guda-oñean izanak gaituk Beŕiatua-gañean. An inguratako baseŕitaŕak bai alaitsu artu zutela gure mutiŕen jkeŕaldiva. Etzakiat zer baño zerbait aparta ba ditek gure mutiŕak, ¡A-ta, ira aztu zitzaidaken, uztu aldi edeŕa eraman ziten Beŕiatua'ko sagarduak. Beŕiro ara joango ba giñukek a zer mauka batzun-batzuek. Baño arerioak ez likek gaur daukan pakerik izango, ez aŕavua. Azkotti'ko eŕeketiak jakingo litekek gure mutiŕen beŕi.

Eta besterik ez, ufengoan geyago idatziko diat.

Beti bezela Jel'pean eta Euzko-Eŕkal aldez,

ANDONI

"Itxarkundia"koa.

Atzoko eguna euzko zaingoetan

Bariku gurena, jai oso.-Izpaŕik ez.-Bingen Deuna'n eleiz karietan Agiŕe jauna.-Guda-oñetan, altabozak ipini sermoia paxistak be entzun egien.-Oleron'en umeak bizkor. Garia, Santander'tik atera eziñik onuntz.

Gizarte-Laguntza

Emakuntzak

Ona emen epaila'ko 25'gnez. gizarte-laguntzarako Zaingo ontan jasotako emakuntzak:

Gudarien umezurtz-aldez, I'taŕ M.'k (Bilbao), 25 laufleko; gudarien umezurtz-aldez, Otxandiano'ko Guda-oŕiketako lagun batzuk, 293; Bizkai'ko Argi-Gintzako paxistaŕ-aufkako batzuk, 3.059,30; gudarien umezurtz-aldez, Etxeandia'taŕ Andoni'k (Bilbao), 100; Garcia Goikoetxea'taŕ Juli'k (Bilbao), diru-sakel baten aurki tutakoa, 20; Lateŕi arteko paxistai-aurkako laguntzaileak, 442.

Danetara: 3.949,30 laufleko.

Oler°n'era joandako umeak

Bayona'n dagon Euzko-Gobernuko ordezkari Oruezabal jaunak gaztigatu duanez, Bermeo'tik ateratako umetaldea, ezeŕen okeŕik ei-dagoz bertaratu ziran ume, osalari, ta irakasleak. Pozaren pozez, umeak zarata ta itzkanbilaka ari ei-dira beti. Poztu bitez beraz euren guraso ta arduradunak.

Lendakaritza ta Guda-Zaingoa

Batzaŕa gauŕ

Atzo goizean Lendakaritzara joan giñanean, Basaldua'taŕ Kepa lendakari Jaun Agurgaŕiaren idazkari bereziarekin topo egin gendun. Goizean Agiŕe'taŕ Joseba Andoni jauna Bingen Deuna txadonako eleizkizunetara joan zala esan zigun.

Geroxeago lendakari jaunak Zuzentza ta Gogo-lantze Zaingo'ko arduradun Leizaola'taŕ Josu Mirena'ren ikera izan zuan. Ginŕzako arduradun Aznar jauna eta Itxasgoko zuzendari Pantaleon Leon ere Agiŕe'taŕ Joseba Andoni jaunari ikeŕ-aldi egiten izan ziran.

Azkenez, Euzko Gobernuak Batzaŕa izango zuala gauŕ, esan zigun Basalduа jaunak.

Guda-oiñetako zabalkundea

Guda-Zaingoan esan zigutenez, uriko txadonen baten egingo zan itzaldia paxistaŕak entzun zegiten, euzko-gudaoiñetan indaŕ-entzuki edo altabozak jaŕi zituzten atzo.

Ondoren alderdi batzuetako ordezkariak itz egin zuten. Oŕelaxe nai litzuke paxistaŕ gudariai ere zerbaiten beŕi ematea. Oŕa oŕ zabalkunde egokia.

Euzkadi'ko Gokernuaren batzaŕa

GUDA-ARAZOA TA JANARI-ORNIKETA BATZA-GAI

Batzaŕ-berezi eguna gauŕk°a

Asteoro oi bezela, batzaŕ izan du oraingo ontan ere Euzkadi'ko Gobernuak. Eraŕegun egin zuten batzaŕ ori, ta, amaŕ eta erdietan, amaitu zanean. Zuzentza ta Gogo-lantze'ko arduradun Leizaola'taŕ Josu Mirena jaunak auxe esan zigun: Zaingo'etako aŕloai ez diegu ikuturik egin gauŕkoan; guda-arazoa ta janari-orniketa izan ditugu batzaŕ-gai. Onexek ditugu gauŕ arazorik gaŕantzitsuen.

Erbestetako ikuriñak loŕtzeko arazoa aztertzeko, ziuŕ asko larunbatez egingo degu uŕengo batzaŕ.

Banakaritzako kontuan uŕengoragoko batzaŕean aztertzekotan utzi ditugu orixe dagauŕko batzarari buruz esan dezaizukedana. Eta besterik gabe ontantxe amaitu zuan gure Leizaola jaun aguŕgaŕiak.

Gogo-Lantze Zaingoa

AGINDUA

Euzkadi'ko irakasketearentzat lenen mailako irakasketea Lenen-Irakasketa Zuzendaritza Nagusia'ren ardurapean eta aŕaupean egotea on dala uste izanik, auxe agintzen da:

Lenengo atalkia: Euzkadi'ko Gobernua'ren agindup ean dagozan sailetan aldi onetan irakasketea daben ikastola bereziak, agindu argitaldu ta amabost egunen buruan Zuzendaritza oneri euron baŕi emon beaŕa dabe ikastola oŕein arduradunak.

Bigaŕen atalkia: Emetik aurera olako ikastola berezirik sortu nai dabena Zuzendaritza oneri baimena eskatu beaŕ izango dautse, baimen gabe ezin sortu daike-ta.

Irugaŕen atalkia: Atalki oŕeitan agintzen dana austen dabenak, yagokuen zigoŕa izango dabe.

Bilbao'n 1937'gn. epailaren 23'gn.

Salerosketa ta Orniketa Zaingo'an

Garia ta iriña ekaŕi

Zaingoko arduradun Aldasoro jaunarekin izan gendun aldi. Bertan geundela, Orniketa'ko zuzendari jaun Beltran'ekin topo egin gendun. Galderaka lotu gintzaion eta auxe erantzun zigun:

—Ez dizutet beŕirik. Atzo etoŕi zan ingalandaŕ ontzia ustutzen asiak dira. Garia ta iriñaz gaiñera 1.330 azukre edo gozoki-zoŕo eta 434 suku edo sopa-gai ekaŕi ditu. Olio ta pentsu apuŕ bat ere bafuan du.

Izpaŕik ez

Izpaŕingirako ezer gaŕantzitsurik oz zuala esan zigun Aldasoro jaunak.

Edarietako zuzendari nagusi Lasa'taŕ Martin jaunak ere orixe bera esan igun.

Atxa jaunari Santander'eko gogaitkaŕikeriaren galdera egin genion. Ara eldutako ontziak Bizkai'ko zekaren jatekorik ez dutela nai eman Santander'taŕok, erantzun zigun.

—Eurak jakingo dute zer egin.

—Ez da orixe edeŕa!—jaulki genion. Iŕipaŕe bat izan zan bere eran tzun guztia.

EGUNA JEL

Euzkadi'k, batuan eta kanpuan dauz areyuak. Gaiztoenak, batuko areyuak dira.-Au eztogu aztu biar.

Lgo. urtia | 73'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n '937'gn. epaila 27'gna. larunbata | 15 euneu

¡Oi gure Abeŕi -Egunen jasa! Ona emen, auŕetikoen zertzelada batzuk; ¡biarkua be, egin daigun beste urtetakuak bezin ospetsu!



BILBAO'N

DONOSTIA'N



BILBAO'N



BILBAO'N



IRUŊA'N